



# Tiburtzio donearen Pestak

Leitza, 2009ko Abuztuaren 10etik 15era



# LEITZAKO PESTAK 2009

AZALAREN LEHIAKETAN parte hartu duten kartelak



2009ko Plazaola Aldizkarirako azalaren lehiaketan parte hartu dutenak honako hauek dira:

1. Amaia Agirre - 2. Iriber Arangoa - 3. Jabi Aranburu

Irabazle izan den **Amaia Agirreri ZORIONAKI!**



## Alkatearen agurra

Kaixo Leitzarrak!

Urtea arin-arin joan ondoren, hemen datozkigu berriz ere Leitzako Pestak! Umore onez eta festa gogoz pasatzeko egun bikainak!

Arin-arin joan den urte honek gauza ugari eman ditu eta hainbat dira azpimarratu nahiko nituzkeen herri eragileak; batetik Aurrera kirol taldea osatzen duten talde guztiak jo eta ke aritu dira lanean eta hainbat ekitaldi prestatu dituzte herriaren gozamenerako.

Kultur taldeak ere, kultur astea hamabostaldi bihurtu du, eta Aurrerarekin elkarlanean egun ederrak prestatu ere bai! Bejondeizuela!


Kax Kax joaz berriz hemen etorri zaigu euskera talde berria, lanerako gogoz eta herrian euskera astintzeko asmoa hartuta.

Eta astindu eta astindu herriko gazteak, ekitaldiak antolatuz eta auzolanean Atekabeltz txukunduz, animo ta segi aurrera!

Udalan, bigarren urtea beteta hemen segitzen dugu gustora lanean, herria egin nahian, eskerrik asko bihotzez ondoan dauzkagunei eta borondate guztiarekin laguntzen diguzuen orori.

Bukatzeko berriz berri pozgarri bat luzatu didate: aurtengo etxafueroa Aurrera Pilota Eskolakoek botako dute, Zorionak hemendik eta eskerrik asko urte guzti hauetan egin duzuen lanagatik, pestak ongi hasi eta hobeki pasarazi!

Amaitzeko, aipamen berezia etxean behar luketen guztiei: lehenbailehen gure artera itzul daitezela. Maite Zaituztegu!



Leitzako Udala



**Gora Leitzeko Pestak!**

*Pestak euskeraz bizi eta kotxea etxen utzi!*



# EGITARAU A

abuztuak 8 larunbata  
*REPARTO EUNE*

12:30 **Poteoa** Gaiteroakin.

14:00 Eskalarin **bazkaria** Aurreran.  
**Bazkaria Torren, urteurrena** ospatzeko.

16:00 Auzoz auzo **PLAZAOLA** aldizkariaren **banaketa**;  
trikitilari, txistulari, akordeoilari eta gaiteroen laguntzaz.

17:00 **Txirrindulariak** industrialdean.

18:30 Kalejira, **txoznen irikiera**.

22:00 **Ikuskizuna plazan**.  
- Lesakako banda  
- Leitzako Jeiki abesbatza  
- Aurrerako dantzariak  
- Akordeoilariak  
- Trikitilari, dultzainero...

24:00 Kontzertuak **GAZTETXEAN**  
- Biok  
- Pog Mathon



# abuztuak 9 igandea

## UMEEN EUNE

08:00 **Diana** Txisturariekin.

11:30 **Umeen txupinazoa** Leitzako udaletxetik.

**Ondoren** Aurrerako Pilota Eskolako gazteak arituko dira plazan:

**Gartziarena - Galartza**  
**Sagastibeltza Egues - Zubiria**

11:30-14:30 Puzgarrik eta jokoak.

16:30-18:30 Puzgarrik eta tailerrak.

18:30 Aurrerako dantzari txikien ikuskizuna eta **ingurutxo irikie** plazan.

20:00-00:00 **TRIKIDANTZ** taldea. Ordu berean buruhaundiak eta gurpildun zezenak aterako dira.





# abuztuak 10 astelehena

## PESTA BEZPERA

11:00 Kuadrilen arteko **Herri Kirolak** plazan.

14:30 Presoen aldeko **bazkarie** eta bazkalostea KUXKUXTU txarangarekin

18:00 **TXUPINAZOA** eta plazaola aldizkariko azalaren egileari saria.  
Ondoren Incansables txaranga, txistulariak,  
erraldioiak, gaiteroak, buruhandiak...

22:00 Suzko zezena

00:00 **TXIMELETA** taldea

01:00 **INCANSABLES** txarangaren erronda



# abuztuak 11 asteartea

## PESTA EUNE

08:00 **Diana Txistulariekin**

09:00 **Entzierroa** eta behiak plazan ondoren **gurpildun zezenekin** entzierroa

10:30 **Meza**, ondoren hamaiketako irikie karrapen

12:00 **Aurrerako Ezpatadantzarik**

Ondoren Afizionatuen arteko **pilota partiduak**

Joldi-Iriarte  
Onsalo-Otxotorena

13:00 Aurreratik **Incansables** txaranga aterako da

18:00 **Zezenak** plazan

19:00 **Herri kirolak:**

-**Inaxio Perurena** (Harria)  
(2009an bi eskuekin 295k errekorra eta esku bakarrarekin 235k, errekorra)

-**Migel Angel Sukuntza** (Txingak)  
(2008ko Euskadiko Txapelduna)

-**Urdax** (Harria)  
(11 urteko gaztetxo Bizkaitarra)

-**Arkaitz Olano** (Aizkora)  
(19 urtez azpikoetan binakako txapelduna)

-**Ruben Saralegi** (Aizkora)  
(19 urtez azpikoetan binakako txapelduna)

-**Jon Rekondo** (Aizkora)  
(2008an 23 urtez azpikoetan binakako txapelduna)

-**Ander Erasun** (Aizkora)  
(19 urtez azpikoetan binakako txapelduna)

Ondoren **Goxokiak** banatuko dira

19:30 **Incansables** txaranga eta buruhandiak

22:00 **Suzko zezena.**

00:00 **LAKET** taldea.

01:00 **INCANSABLES** txarangaren erronda



# abuztuak 12 asteazkena

08:00 **Diana Txistularikin.**

09:00 **Entzierroa** eta behiak plazan

Ondoren entzierroa gurpildun zezekin

12:00 **Kulki** taldearekin jolasak umeentzat

Ondoren **Aparra** plazan

13:00 Aurreratik **Incansables** txaranga aterako da.

17:30 **Zezenak** Plazan

18:00-20:00 **Argazki Lehiaketako** argazkien erakusketa  
(Edonork irabazlea aukeratzeko egingen den bozketan parte har dezake)

18:30 **Aurrerako** dantzarien emanaldia plazan

Ondoren **Goxokiak** banatuko dira

Ondoren **Incansables Txaranga** aterako da Aurreratik

19:30 **Pilota partidu** profesionalak Amazabal Pilotalekuan

21:30 **Suzko zezena**

22:00 **Herri aparria** plazan

Ondoren **Afalostea** eta **kalejira** Incansables txarangarekin

03:00 Leitzeko **ingurutxoa** plazan





# abuztuak 13 osteguna

08:00 **Diana** Txistulariekin

09:00 **Entzierroa** eta **behiak** plazan

Ondoren entzierroa gurpildun zezekin

11:00 **Paella lehiaketa**

12:00 Aurrerako pilotari gazteen partidua plazan

Iera Agirre - Maite Urtasun  
Judith Etxarri - Maider Otegi

Sagastibeltza - Zubiri  
Jaunarena - Zabaleta

13:00 Aurreratik **Incansables** txaranga

18:00 **Zezenak** Plazan

19:00 **Bertsolariak** Plazan

-Andoni Egaña  
-Angel Mari Peñagarikano  
-Julio Soto  
-Maialen Lujanbio  
-Maialen Arzallus  
-Igor Elortza


Ondoren **Goxokiak** banatuko dira plazan

19:30 **Incansables** txaranga aterako da aurreratik

22:00 **Suzko zezena**

00:00 **GARRAXI** taldea

01:00 **Incansables** txaranga  
aterako da erronda egitera



# abuztuak 14 ostirala

## GAZTE EUNE

08:00 **Diana** Txistulariekin.

09:00 **Entzierroa** eta behiak plazan ondoren gurpildun zezenekin entzierroa

11:30 **GOITIBEHERAK**

13:00 Aurreratik **Incansables** txaranga aterako da.

14:30 **Gazte bazkaria** Gaztetxean.

17:00 **Gazten jokoak** plazan. Zezenekin batera zenbait joku egingen direlarik

18:00 **Zezenak Plazan**

19:00 **Orkresta** taldearekin kalejira

22:00 **Suzko zezena**

23:00 Kontzertuak plazan

- Habeas Corpus
- Zesatek

01:00 **Incansables Txaranga** aterako da erronda egitera





# abuztuak **15** larunbata

## *EZKONDU ETA BIKOTEEN EGUNA*

08:00 **Diana** Txistulariekin.

09:00 **Entzierroa** eta behiak plazan. Ondoren gurpildun zezenen entzierroa Gaztañagatik.

12:00 **Herri kirolak** plazan.

- Xanti Olano - Diego Riaño

- Iker Vicente - Mikel Zabaleta

- Eloy Kortxero - Eneko Saralegi

13:00 Aurreratik **Incansables** txaranga aterako da

14:30 **Aurrerako bazkideen bazkaria.**

18:00 **Ezkondu eta bikoteen entzierroa** eta zezenak plazan.

19:00 **Ezkondun eta bikoteen INGURUTXOA** plazan.

Ondoren **Buruhaundiekin Incansables** txaranga aterako da

Plazan **Aralar musika eskolakoen emanaldia** eta goxokiak banatuko dira

22:00 **Suzko zezena**

00:00 Euskal musika, Euskal kantuen emanaldia **Prefosta** taldearen eskutik

Ondoren “**pobredemie**” **Incansables** txarangarekin



# PROGRAMA

## SABADO 8 DE AGOSTO

Reparto de programas

- 12:30 Poteo con gaiteros.
- 13:30 Comida.
- 16:00 Reparto.
- 17:00 Ciclistas.
- 18:30 Apertura de las txoznas
- 22:00 Espectaculo musical en la plaza
- 24:00 Conciertos en el gaztetxe

- 13:00 Incansables
- 17:30 Vacas
- 18:30 Dantzaris  
Después, poteo con txaranga
- 19:30 Partidos pelota profesional
- 21:30 Toro de Fuego
- 22:00 Cena Popular en la plaza  
Sobremesa y kalejira con la Txaranga
- 03:00 Ingurutxo

## DOMINGO 9 DE AGOSTO

Día del niñ@

- 08:00 Diana.
- 11:30 Chupinazo a cargo de la corporación txiki.  
Segidamente partidos de pelota a cargo de los niños del AURRERA K.E a.
- 11:30-
- 14:30 Hinchables, talleres y juegos
- 16:30-
- 18:30 Hinchables.
- 18:30 Dantzaris.
- 20:00-
- 00:00 TRIKIDANTZ, cabezudos ...

## JUEVES 13 DE AGOSTO

- 08:00 Diana
- 09:00 Encierro y vacas
- 11:00 Concurso de paella
- 12:00 Pelotaris
- 13:00 Incansables
- 18:00 Toros
- 19:00 Bertsolaris
- 19:30 Incansables y cabezudos
- 22:00 Toro de Fuego
- 00:00 Garraxi
- 01:00 Incansables

## LUNES 10 DE AGOSTO

- 11:30 Herri kirolak.
- 14:30 Comida a favor de los presos con la txaranga kuxkuxtu.
- 18:00 Chupinazo.
- 22:00 Toro de fuego.
- 00:00 Tximeleta.
- 01.00 INCANSABLES Txaranga.

## VIERNES 14 DE AGOSTO

- 08:00 Dianas
- 09:00 Encierro y vacas
- 11:30 Goitiberas
- 13:00 Incansables
- 14:30 Comida en el Gaztetxe
- 17:00 Juegos en la plaza
- 18:00 Vacas
- 19:00 Orkresta electrotxaranga.
- 22:00 Toro de Fuego
- 23:00 Conciertos en la plaza.
- 01:00 Incansables.

## MARTES 11 DE AGOSTO

- 09:00 Encierro y vacas
- 10:30 Misa
- 12:00 Ezpatadantzaris  
Después, partidos de pelota
- 13:00 INCANSABLES
- 18:00 Toros
- 19:00 Herri Kirolak
- 22:00 Toro de Fuego
- 00:00 LAKET
- 01:00 INCANSABLES

## SABADO 15 DE AGOSTO

- 08:00 Dianas
- 09:00 Encierro y vacas
- 12:00 Herri Kirolak
- 13:00 Incansables
- 14:30 Comida de socios en el Aurrera
- 18:00 Encierro y vacas
- 19:00 Ingurutxo  
A continuación actuación de la Escuela de Música aralar  
Incansables txaranga hará su ronda habitual.
- 22:00 Toro de fuego
- 00:00 Concierto en la plaza ,  
con Prefosta taldea.

## MIERCOLES 12 DE AGOSTO

- 08:00 Dianas
- 09:00 Encierro y vacas
- 12:00 KULKI y Espuma

Después, POBRE DE MI



## OHARRAK

---

1. UDALAK ez du ZEZENETAN gerta daitezkeen istripuen erantzunkizunik hartzen.
2. EGITARAUA borondatearen truke banatuko da. UDALETXEAN, LIBURUDENDETAN eta TABERNETAN ere salgai egonen da
3. ZEZENETAN dabiltzanei eskapa bidea errezagoa egiteko, barreren gainean inor ez esertzea eskertuko genuke.
4. Hamasei urtez azpikoak debekatua dute zezenetara ateratzea.
5. Zezen suzkoan gerta daitezkeen erreketak edo bestelakoen kargu ez gara egiten.
6. ARRAIN PAELLA lehiaketako arauak:
  - Bakoitzak bere sua eraman beharko du. Horretarako osagaiak ere norberak eraman beharko ditu.
  - Nahitaezko osagaiak: Arroza (noski!), arraina, barazkiak... Hortik aurrera bakoitzaren gustoaren eta trebeziaren ariora, eta betiere aurreko osagaiak errespetatuz.
  - Epai mahaiak hartuko du erabakia.
  - Gero nahi duenak bertan bazkaltzeko aukera izanen du. Mahaiak eta aukerak bertan izanen dira.
7. Pesta laugarrenean GOITIBERAK izanen dira. Hilerritik hasi, Joandegia, Errekaldenea, Malesakenea eta Gaztelunetik Peritzerrainoko ibilbidea egiten dute. Beraz, bidea itxita egonen da eta bezperatik kotxeak kentzea eskatzen da Peritzeko ataritik gehienbat. Kotxea kentzen ez duenari grua eramen dio eta berak ordaindu beharko ditu grua-  
ren kosteak. Antolaketa lanetan Nafarroako Federazioarekin batera ari gara, beharrezkoak diren anbulantzia, ase-  
guru eta babes-jantziak izanen direlarik.
8. Pesta batzordeak aurten pestetan argazkiak ateratzea animatzen zaituzte, datorren urtean egiten den lehiaketan parte har dezazuen.

## PLAZAOLA ALDIZKARIAREN ANTOLATZAILEEN OHARRAK


---

1. Plazaola Aldizkariaren antolatzaileek ez dute zertan ados egon behar bertan agertzen diren iritzi desberdinetako idazkiekin.
2. Lanak bidaltzen dituztenek beren izenak jakinarazi behar dizkie aldizkariaren antolatzaileei, sor daitezkeen arazo legalak idazkien egileen erantzunkizuna izanen direlarik.
3. Gure eskerrik zintzoenak, aldizkari hau osatzeko, bere lanarekin lagundu duten idazle eta baita azalaren lehiaketan parte hartu dutenei ere

# ARGAZKI ZAHARRAK



Ezpatadantza 1966



Leitza 1931





Aurrera - Bazkaria 1944



Entzierro zaharra



Pestak 1970

# PLAZAOLA

## Leitzako Aldizkaria



31. zenbakia.

Hau izan da gazteen saileko azalaren lehiaketako irabazlea.

**Lierni Sestorainri ZORIONAKI!**





# Senpelar

## Bertsolari aundia

Juan Francisco Petriarena Berrondo, 1835. urtean jaio eta 1869. urtean zendu zen. Bere aitona, Joaquin Petriarena, Naparroako Sunbilla errian jaiotakoa zen. Bere aita Juan Cruz de Petriarena, Naparroako Arantza errian jaioa eta ama berriz, Maria Rita Berrondo.

Senpereren aita, Arantzatik, Oiartzungo errota zaarrera etorri zen bizitzera. Senpelar jaio eta biaramunean Oiartzunera bataiatzera ekarri omen zuten.

Oiartzungo erria eta "Senpelar" baserria karlisten mende omen zeuden eta aurreko mendiak eta Erreterian berriz, liberalak nagusi.

Gauzak orrela, gerragaitik baseritik Erreterira joaterik ez zegoelako, Oiartzunen bataiatu omen zuten. Bere gurasoak beartsuak omen ziren eta bizi ziren baserria urria eta kaskarra, beraz Senpelar, aidetasunez bezala, bere izeba Maria Bautista Petriarenarengana, eraman zuten, an ezitzera eta aztera.

Gizaki eran, gizon elizkoia eta atsegiña, kristau jatorra eta paketsua izan bear zuen.

Erreterian, zaarregandik oso ezaguna izan bear zuen Senpelar bertsolaria. Donostiako azoka eta kalean zenbiltzenak, Senpelar korruan bildu eta bere aldeko oiuk eten eten gabe oiukatzen omen zuten. Egi egiz ez zen giro txarrik izanen une aietan, ango gizon eta emakumeen artean.

Bertso bat ere bada, garai artako beste bertsolari batek Senpelarri kantatua:

"kupel bat jarri dute atarian txutik  
gizon txikia aundia emateagatik  
zer esanen faltikan ez dago gugatik  
onoko txiki onek astinduko gaitik"

Bertso onetan gauza bi ikusten dira: bata bertsoaren maitasuna eta bigarrena bere gorputzaren txikitasuna, naiko txikia omen zen.

Sagardotegian esaten zenez, bertsoan asten zenean onela esaten omen zioten, "ea Praisku igo onetara, eta aulki batera igoarazten zuten".

Senpelar, Oiartzungo alaba batekin ezkondu zen, Maria Josefa Retegi zeritzanarekin, 1859 urteko abenduaren 22'an. Emaztea, 1869 urteko urriaren 25 ean baztanga gaitzak jo eta il zen, ondoren Senpelar bera ere baztanga gaitzez il zen 1869'ko abenduaren 8'an. Senpelarren ama, 1882'ko uztailaren 14'e an il zen, semea baiño 13 urtez geroago.

Senpelarren alabaz, eta umezurtz artaz errukituriz, "Egurralo" baserriko Maria Luisa jabetu zen. Kozkortu zenean Andoainen bizi izan zen eta eriotza Pasai Antxon izan zuen. Senpelarrek, beste bi alaba ere izan omen zituen, Juana Josefa eta Juana Manuela zeritzanak, bi aizpa auek emakume egin zirenean Ameriketara joan ziren eta an zer egin zutenen aztarnak galdu dira.

Sei senideetatik, Maria Luisarekin izandu zuen artu emanik egokiena. Urte t'erdi anaia baiño zaarragoa zen. Ezkondu, Javier Ignacio Aranberri Elorzarekin egin zen, Azkoitiko semea.

Senpelarren arreba ere bertsolaria omen zen eta bein baiño geiagotan jardun izan omen zen anaiarekin bertsoan. Erreteriko fabrika aundi batetan lan egiten zuten biak.

Bein batez nagusiak Andoaiñera bidali omen zittun eginkizun batetara, eta emen elkarri bertsoak bota arittu omen ziren, an bertako jendea entzuten pozez zoratzen zeuzkatela. Senpelar gaixotu zenean, bere arreba Maria Luisa joaten zitzaion maiz eta maiz naiz eta

aurdun egon. Senarrak onela esaten omen zion, "etzoazela Maria Luisa anaiarengana, bakarrik utzi bear al nauzu, gure aur onekin? . Emazteak Orduña erantzun zion,"ez, ez, ez, Ez naiz kutxatuko! Ondo aterako naiz, lagundu egin bear diot ". Dena dela Senpelar abenduaren 8´an il zen eta egun berean Maria Luisak arratsaldeko 7´erdietan aurtxoia izan zuen. Izena Daniela jarri zioten.

Jose Ramon Irigoyen, apaizak etxean bertan presaka bataiatu zuen. Eta bear bada Senpelarri elizakoak ematera etorri zen apaiza izango zen. Senpelarren anai zaarrena Juan Jose zeritzana, Senpelar baserrian bizi izan zen il arte, 1900. urte inguruarte. Iñork ez du beste anai aien berririk eman. Ameriketara joan ote ziren?. Garai aietako joerak orrelakoak ziren.

Juan Joserren semealabeetatik irugarrena, Juan Antonio zeritzana, etxerako gelditu zen eta Maria Olaziregi Karrerarekin ezkondu zen. Juan Antonioren ondorengoak 1918 urtean Senpelar baserrian jarraitzen zuten. 1924. urtean erriko zentsoa egin zenean aren seme Jose Joaquin bakar bakarrik bizi zen baserrian. Eta 1972 ko zentsoan ez da baserriaren aipamenik ere egiten, baserria utsik gelditua izango zen.

Orain berriz, Senpelar baserria berritzen eta txukuntzen ari dira, leengo itxura zaarra errespetatuz. Nagusi berriak etorri dira baserrira. Izan ere euskaldun jatorrak omen dira eta laister bertan bizitzen jartzeko asmotan dira. Berri pozgarria dela derizkiogu

¡Bejondaimena eman ez!  
Senpelarren ilobak, bein baiño geiagotan aipatzen omen zuen osabaren bertso paperak bere etxean gordeta izaten zirela.

Baiña egun batez Evaristo Bozas Urrutia jauna,

etxera etorri eta eskatu egin omen zizkion, eta baita eman ere, atzera bueltatzekotan noski. Baiñan gero, nonbait Evaristo jauna Argentinara joan omen zen eta paperak batere ez itzuli. Senpelarren paperak orrela galdu ziren. Egi egia da, Senpelarrek, bertso paperak idatzita utzi zituela, eta ez bat edo beste baizik eta mordo aundi bat. Onek bazuen Rodolfo izena zuen seme bat, Madrilen bizi zen eta euskaltzale prestua zen. Bertsolariaren ilobak idatzi zion eta baita ere gizonki erantzun ere, gizaseme onek.

Evaristo Bozas bera, kazetaria zen eta liburu bat idatzi zuen "Andanzas y mudanzas de mi Pueblo" izenarekin, 1921. urtean argitaratu zena.

Baita ere Senpelarrek utzi zituen bertso paperengatik, eskutitz bat edo beste alkarri gurutzatu omen zittuzten Antonio Zabalak eta biek. Nere kezka da, bertso paperen jabea nor izan ditekene edo izan ditezkeen.

Senpelarrek, irakurtzen ba ote zekien zalantzan jartzen da, baiño idazten gutxiago. Orregatik esan daiteke bertsoa bota bai, baiñan lagun idazle baten bearra izango zuela, eta au erne egon bear, bertsoa bota ala, buruz jaso eta idatzi aal izateko. Gaur aiñeko aurrepenarik ez zela guztiok jakiñen gaiñean gaude.

Senpelarren inguruko beste bertsolari batzuk:

- **Miguel Antonio Otamendi Olaskoaga** (1829- 1876). Errenteria, Oiartzun eta Hernani inguruko sagordotegietan maiz maiz aritzen zen eta bertara gizon eta emakume dexente urbiltzen omen ziren.
- **Larraburu eta Ardotx**  
Elkarrengana arikio eta oso erraz menderatzen zuen Larraburuk Ardotx, au berriz oso zitala eta gizatxarra izakio.



Aldi batean, beraien saioa bukatu zutenean Ardotx atarira atera omen zen bai, baiño baita oso urrutira joan gabe, bazter batean gelditu zen Larrabururen zain, au atera zenean eta Ardotx ezkutatuta zegoen tokira eldu zenean, onek arri batekin buruan jo zuen. Ez ordea arria botata baizik eta arria eskuan zuela kopeta ebaki zion burua larrutuz. Ondorengo bertsoak garbi adierazten dute nolako golpea izan zen:

“iturritik bezala zetorren odola...  
ez du edozeinek olako sangriya...  
nere denborako sekulako erida...”

Oraindikan ere esaten dute zein tokitan gertatu zen ori. Errenteriko Altamugarri baserriko Jose Manuel Mendiburuk ala esan zuen, San Ignazio bezperan egiña zela bai pikardi ori. Larraburu gizarajoa etxera joan eta arrebak sendatu zuen. Pisontzian trapua busti eta pixarekin garbitzen omen zion zauria. Garai artan ez zen aukerarik beste sendagai batzuk erabiltzeko. Bertso onek, au esanez egunaren berri ematen digu:

“Aita San Ignaziyo biyamon goizian  
auspez erori nintzan  
meza entzutian lau lagunek artuta  
atarira atera ninduten”

Larraburu gizarajoa burutik galdu egin zen. Nonbait burura odol asko joan zitzaion, eta burutik naastuta geratu omen zen. Ardotx, gaizki egileak, negar egiten omen zuen, negar egingo zuen baiño gizon bat ondatuta utzi zuan.

Larraburuko Josepa Arbelaitezek onela esan zuen: Larraburu, il da aurkitu zutela belar gaiñean-edo. Xetasun onetaz Jose Etxeberriak onela erantzun zuen: “Ez, ez dut uste il da billatu zutenik, karlista gerra bukatu eta laister il da izango zen ura. Oiartzunen berriz, eta batez ere Ugaldetxo aldean bein baiño geiagotan ango

bertsozaleen aotik beste zerbait ere entzuten zen. Etsita geunden bertso oriek aurkitu eziñez, baiño gutxiena uste genuenean Ugaldetxoko Portugal baserriko Ignacio Pikabeak bi berri eman zizkigun. Ala ere pozik jaso genituen. Ignacio Pikabeak, aitona zaar bati ikasi omen zizkion, eta Larraburu il zorian zegoela kantatutakoak omen dira:

“erdiyan nago geldi geldi,  
auek esaten dute preparatu bedi,  
adios egin zaiozu mundu guztiari,  
senidetxuak eta lagun urkoari,  
eskuan muñ emanez aita eta amari.  
Aingeruak jo dute trompeta soiñua,  
adios adiskideak martxatzera nua,  
adios lagun urkoak adios mundua,  
adios aita eta ama ekarri bostekua,  
adios aiton amonak zerura nijua”

Larraburu bertsolaria 1876 eko otsailaren 25 ean il zen arratsaldeko bostetan, 47 urterekin. Au il ondoren familiak zer egin ote zuan?

Ondoren, ez dira aurkitu Oiartzungo artxiboe-tan, familiari buruzko berririk. Berriz, Jose Antonio Bengoetxea Lecuona “Ardotx”, 1826. urtean jaio eta 1878. urtean il zen.

Oiartzungo lur onetan, bertsolari kabi aundia izan dela esan genezake. Askoz ere geiago daude izendatuak baina ezinezkoa egiten zait denak aipatzea batetik luzeegi ez izatearren eta ospea ezagun edo nik estimatzen dedan bezala ikusi ez dudalako.

Leitzarrok eta beste irakurzaleok au dezue nik azaltzen dizueten irakurgaia. Aurtengoz besterik ez, osasuna izan dezazutela, jainkoaren onez.

**Mikoneko Demetrio Salbarredi**

## GAZTETXEA LEITZAN

### Lehen eta orain

Iaz gaztetxean txanda bat egitea egokitu zitzaidan, festa bigarrenean. Atekabeltzen sartu nintzenean sekulako barne inarrosaldia izandu nuen. Buru-erraiak lehertzeko zorian jarri zitzaizkidan. Izan ere, gaztetxean aurreko txanda duela 20 bat urte egin nuen. Eta orduko oroipenak, hainbeste urtez ortziak, bat-batean berpiztu zitzaizkidan. Zarzar-zar... Orduan neure buruari agindu nion zer edo zer egin behar nuela lehengo eta oraingo gaztetxeei buruz. Batez ere, oraingo gazteek aitortpena ongi merezi dutelako. Eta, beraz, erabaki dut gaztetxearekin eta neure buruarekin ditudan zorrak kitatzeari ekitea.

Atekabeltz Leitzako gaztetxeak lau urte bete berriak ditu, uztailean 20an hain zuzen ere. Ospatu izanen dute noski gazteek, ederkirabazia duten ospakizuna. Zorionak guziei, hor inguru horretan zabiltzaten guziei, Gazte Asanbladako kideei eta abarrei. Ez da txantxetako kontua lau urtez lanean aritzea eta herriko dinamikan presente egotea. Eta zuek lortzen ari zarete hori.

Gaur egun, gure herrian urteko ospakizunik garrantzitsuenetan, erreparatzen badugu pixka bat, gazteek hortxe izanen dute beren proposamena galtzarbean. Ihoteak izan ala festa izan, hortxe izanen dituzu autogestionatutako ekintza askorekin: bazkari-afariak, batukada edo karaokea, musika kontzertuak edo bestelako ekintzaren bat... Baina ez hori bakarrik, kultur arloan ere ez baitira lo egoten. Aurten, esate baterako, kultur hamabostaldian edo Emakumeen egunean hortxe izandu genituen Gazte Asanblada eta Bilgune Feminista elkar hartu eta, jo eta su, lanean. Emaitzak begi bistakoak: hitzaldiak, antzerkia, kontzertuak, kalejira, pintura erakusketa... Eta horretaz guziaz gain, bestela ere hainbat gauza ere egiten dituzte, Leitza-Goizueta topaketa, konparazio baterako. 15 bat lagun gazte asanbladan, auto-kudeaketa eredu baten baitan, herria osatzen eta aberasten, egunero-

egunero. Gazteek beren kabuz lanean eta beren burua gobernatzen. Haiek dituzten grinak eta jakin-minak ase nahian. Horixe baita, deus izatekotan gaztetxeen zentzua eta muina.

Leitzak lehenago ere, duela hogeitatu urte, izandu zuen gaztetxea. Eta orduan gaztaroan ginenak ezagutu genuen. Urte batzuk dituzten herritar guziek edukiko dute gogoan. Eta batzuren batzuk kudeatzeko ardura ere izandu genuen. Bo, ardura izan behar genuen, baina harridura, arrangura eta asperdura sortu genuen. Hala, oraingoa ikusita poza eta inbidia sentitzen dugu.

Guk, orduan gazteak izaki eta punkismoa-eta modan egoki, anarkia monarkia bihurtu genuen. Hots, auskalo noren aginduz edo indarrez gutxi batzuk besteen lepo bizi ziteza, ahal zen hobekien, potro-poto-jorran eta enpo jan-edan-drogatuz. Ederra sistema alternatiboa. Eskarmentu zoritxarreko haren ondoren, nork uste Leitzan gaztetxeak inolako etorkizunik izan zezakeenik? Inor gutxi. Baina, hala ere, usteak erdi ustel izaten dira eta, eskerrak.

Mediku-etxea izana zen aurreko gaztetxea. Bi urte baino ez zituen egin, eta horiek betetzeko ere estu eta larri ibili ginen. Oraingoak berriz, zer da eta, iraupenean bakarrean bikoiztu egin du aurrekoaren estatistika. Eta jardueretan ere, zer esanik ez, ezin alderatu ere. Eta gainera, aurrekoak ez bezala, oraingoa herrian txertaturik eta modu egoki eta txukun batean ibilki, elkarlanean eta modu positiboan. Izugarria eta ikusgarria. Inork ezin esan deus txarrik gaurko gazteengatik.

Aurrekoa aldiz bestelakoa izandu zen: Kaotikoa eta desastrosoa, batez ere. Eta haren historia motza izanagatik, hagitz trinkoa eta sakona da, eta oso luze joko luke xehe-xehe azaltzea. Baina, hala eta guztiz ere, jende askok hala eskatu izan





duenez behin baino gehiagotan, llabur-llabur bada ere, gaztetxe zaharraren gaineko azalpen bat eginen dugu, nahi eta jakin orain lehentasunezkoa dela egungoari zor dioguna aitortzea.

### **Gaztetxe zaharraren historia laburra**

1986. urtez geroztik edo, udalari gazteen kultur kezka-nahiak asetzeko balioko zukeen lokalen bat behin baino gehiagotan eskatu arren, baiezkorik jasotzen ez, eta, lehenago medikuaren etxea izana okupatu genuen 1988. urte hasieran. Ondoren, martxoaren 24an udalarekin hitzarmena sinatu genuen, haien deiei erantzunez eta hori eginik laguntzaren bat jasoko genuelakoan, etxe hura egokitzeko eta antolatzeko. Ez baitzegoen egokiturik lokal soziala izateko. Udalak bere aldetik funtzionamendua ezartzen eta arautzen saiatzen ari zen. Eta, hala, akordioa sinatu genuen orduko alkateak eta Gazte Asanbladaren izenean lau gaztek. Gero, inork ere ez zuen bete akordio hori: Ordutegiak eta obra-baimen kontuak guk ez genituen sobra errespetatu, gazteentzat oso kaskarra baitzen berez akordioa; eta udalak bere aldetik ere behin eta berriz egindako material eskaerei erantzuten ez eta, bere legea ezartzen baino ez zen saiatu. Hala, egoera gero eta estuagoa zen. Inolako laguntza eta baliabiderik gabe, ba, larri ibilki gazteok deus egiteko, eta orduan batzarretara joaten hasi, eta istilu asko eta franko larriak sorrarazi genituen.

Besteak beste, aipagarria da 1988ko urrian gertatua: Batzarrean ginela gaztetxeko egokitzapen lanetarako laguntza eske, eta han laguntza uka eta uka. Gazte mordo bat haserre, geroago eta haserreago, emateko eta emateko. Gazteek alkateari gogor egiten. Bazterrak larri demonio. Eta ateratzen ez uzten alkateari udaletxetik. Eta, azkenean, ihesi joan behar! Leihotik alde egin behar izandu zuen alkateak atzeko aldetik. Ondoren, 5 gazte eta bi zinegotziren aurkako

epaiketa ere izandu zen gertakari hura medio, eta bost gazteak zigortuak ekonomikoki eta.

Bitartean, orokorrean, 1988. urtean hainbat hilibetez edo, nahiko poliki aritu ginen lanean 20 lagun edo: etxea moldatu pixka bat, pintatu, egokitu barra moduko bat, egurra prestatu, kontzerturen bat antolatu, pelikula emanaldiren bat ere bai... Baina ondoren 1988ko urritik aurrera, azaldutako istiluak medio, eta bat eta beste, sesioan aritu ginen gehiago beste deusetan baino. Hala, negu hartan bertan, 1988ko abenduan, akordioa bertan behera utzi zuen udalak eta gaztetxea itxi.

Handik egun gutxira ordea gazteok berriz okupatu genuen etxea. Eta orduan guardia zibilak gaztetxeko kide baten bila joan, eta atakabeltzera (orduko kuartelean) eramanez. Akordio malpartatu hura sinaturiko gazte bat ia egun oso batez Atekabeltzen eduki zuten zibilek galdekatzeko eta presionatzeko: "gaztetxea uzteko behar, eta zin egiteko ez genuela gehiago okupatu, edo atxiloturik Iruñera eramanez zutela" Azkenean, abokatu etorri Iruñetik, eta libre utzi zuten.

Ondoren, atxilotutako gazte hark, abokatuaren laguntzaz helegitea ezarri zuen alkatearen erabakiaren aurka. Ixteko erabakian akats nabarmenak izaki: Gazte hura errudun eta arduradun bakarra bihurtzen zuelako alkateak, eta forma zein prozedura akats larriak zirela medio, eta akordioa indarrean zegoenez, gaztetxea ezin izandu zuten itxi. Berriz atzera etxea gazteen esku legalki.

Alabaina, gainbehera hasia zegoen zegoeneko, eta ondorengo aldia aurrekoa baino azkoz okerragoa izandu zen: jende berria sartu zen Gazte asanbladan, eta iparra erabat galdu zen: pixka-pixka kanpotarren esku gelditu zen lokal

guzia. Nahi zuenak nahi zuen guzia egin zezakeen han. Gaztetxeko goiko gelak ere ireki zituzten, eta edozeinek erabiltzen zituen. Gure arteko antolaketa eza nabaria zen oso. Barne funtzionamendu arazo larriak ere izandu genituen. Ea komunikazio eza izugarria. Dena guay eta quepasatio filosofia gailendu zenean, beste urte betez iraun zuen gaztetxeak, iparra galdu-rik arestian esan bezala. Gazte batek, ordurako giltzarik ere ez zuena, helegiteari eutsi eta galarazi zuelako aurretik ixtea.

Esan bezala, inolako kontrolik eta lan ildorik gabe zegoela gaztetxea, oso giro aldrebasa sortu zen herrian. Jende asko haserre eta gure aurka: gaztetxean astelegun gorrietan kontzertu amai-gabeak, auzoan lapurretak nolnahi, kontsumorako dena libre... Anabasa ikaragarria izandu zen. Eta pixkanaka-pixkanaka herritarrek urrunduz joan ziren, eta kanpotar batzuen esku gelditzerainoko okertzea gertatu zen, azkenerako.

1990ko maiatzean gertatu zen behin betiko itxiera. Sinadura bilketa izugarri bat egin zen gure aurka, 432 sinadura. Alajainkoa! Maiatzaren 3an batzarra zegoen sinadura bilketaz: Auzokoek salatzen zuten funtzionamendu okerra eta auzoaren egoera lotsa-emangarria. Hala, Udalaren erabakia honakoa izandu zen: gaztetxea ixtea betiko. Kosta ahala kosta.

Azken batzar haren ondoren, maiatzaren 8an, bilera bat antolatu zen plazan gaztetxeaz aritzeko. Gazte leitzar bakarra edo azaldu zen bertara. Hasierako, hau da, bizpahiru urte lehenagoko 40-50 gazte okupatzaile eta alternatibo haietatik guzietatik bat bakarra azaldu azken bilera hartara. Atakabeltzen erretenitutako hura, hain zuzen, eta han, lehen alkatearekin egin behar izan zuen bezala, bere burua kanpotarrez inguratua, heriosoan, gazteei ere aurka egin behar izan zien. Eta herria bakean uzteko esan, herritarren

esku. Gu ginela bertakoak eta gu biziko ginela ondoren ere Leitzan. Kanpotarrak gure herrian gaztetxearen etorkizuna erabakitzen, alajainena!

1990ko maiatzaren 11an, tapiatu zuten gaztetxea, zurez eta porlanez sarrera guziak itxi. Berlingo harresia bailitzan. Eta ondoren, jakinik ere gaztetxea zabalik eusteko helegiteak hor zirela eta lege aldetik aukerak bazirela, etsiak hartuta egoki, betiko ahazten saiatu ginen: Amets gaizto hura bukatu zedila lehenbailehen.

Herrian ez zen apenas mugimendurik izandu itxiera hari erantzuteko, eta ondoren ere belaunaldi oso bat behar izan da gaiari buelta emateko eta berriz ere gaztetxea izateko.

Amaitu aurretik, berriz ere adieraziko diet oraingo gazteei: gaur egun Atakabeltzen egiten ari zareten lana meritu handikoa da, txalogarria, zinez eta berenaz. Eta zenbait alditan jende gehiegirik joaten ez bada ere, ez etsi eta eutsi goiari. Beti aurrera, iparra galdu gabe! Zorte handia izan dezazuela, urte askoz, eta segi aurrera!!!

**1988ko Gazte Asanbladako kide bat**





## **Erasoen aurrean, autodefentsa feminista!** Eraso sexistei erantzun!

Emakumeok Euskal Herriko jaietan, herriko taberna, txosna eta kalean zehar askatasunez ibili nahi dugu, baina zoritxarrez ipurdia ukitzen digutenekin, gau osoan zehar txikle baten moduan itsasten zaizkigunekin, ezezkoak onartu nahi ez dituztenekin, objektu sexualtzat hartzen gaituztenekin eta kasurik larrienetan bortxatzen gaituztenekin topo egin behar izaten dugu.

Honela, askatasunez bizi garenak gu izan beharrean, erasotzaileak dira gure sexualitatearen, gure gorputzaren eta gure erabakien aurrean inpunitatez eta indarrez jokatzeko dutenak. Beraiek lasai eta askatasun ozoz dabilta kalean zehar. Konplize ugari izan ohi dituzte gainera, bortxa egoeren aurrean beste aldera begiratu eta ezertxo ere esaten ez dietenak.

Emakumeok ordea ez ditugu eraso hauek onartu nahi, badugu barruan aski indar nahi ez dugunean ez esateko! Ukituren bat gustuko ez badugu argi erantzuteko! Erasotzen ari diren gure laguna

babesteko eta gurea dena defendatzeko. Autodefentsa feminista aldarrikatzen dugu, erasoekin amaitzeko jokabide, jarrera eta tresnak jar ditzagun martxan. Aurten, Euskal Herriko jaietan pi-pi-pi! Txilibituaren soinua entzutean emakumeren bat arriskuan dagoela jakingo dugu, beraz, erasotzaile bat dagoela gure inguruan. Erasotuak sentitzen bagara jo dezagun txilibitua! Emakumeen elkartasunetik abiatuz eta herritar guztien erantzukizunarekin, erasotzaileak eta euren konplizeak jai guneetatik kanporatuko ditugu!

**Leitzako Bilgune Feminista**

## INGURUA ZAINDU

### Inguruarte berreskuratu

Maiatzeko egun polit batean banenbilen herria barrera pasean, eta, zer ikusiko eta pankarta ikaragarri bat Inguruarten, kakazelai. INGURUZAINDU. "Ño, bakarren bat o hartu duk. Eskerrik! Inguruazaintzea oso ongi zagok" Esan nuen nire artean. Poza hartu bainuen. Hori nola dagoen ikusita, goibeldu egiten baita pertsona: batere zaindu gabe, belarra luzea, zaborrak, argirik gabe, ...

Nik, egia esateko, lauzpabost urte baneramatzan nahikoa haserre Inguruarten gertaturiko aldaketekin. Izan ere, urte askotan herritar guzien kirol eremu izatetik, izenez ere esaten ez nekien zaldi eremua izatera igaro baitzen. Eta ez da txantxetako aldaketa. Badakigu gauzak denborarekin aldatzen direla, eta onartu egin behar izaten dela. Jakina. Baina, aizu, denak du bere neurria.

Horretaz gain, azken boladan zabaldu denaren arabera helikopteroek larrialdietarako behar duten gune egitea aurreikusida. Beharrezkoa omenda. Zaurituak helikopteroz eramateko edo suteetarako edo... Ageriko da.

Gai hori lantzen eta dokumentatzen hasita, Mikel Olanok "Aio Leitze" bere Leitzako euskararen hiztegian dioena Inguruartez hauxe da: "ferial. Nose emplea actualmente. Continúa llamándose así un campo donde en tiempos tenía lugar el ferial (Azpiroz 1967)"

Tolatxenekoa apezak aipatzen duen lekua aspalditik kakazelai deitzen den hura da; urte askoan futbol-zelai txarra eta behin behineko kanpin izan ondoren, orain abereak hezitzeko leku egin dute.

Olanoren aipamenaren hariari tira eginda, aipatu behar da kakazelaie esandakoez gain beste zerbait gehiago ere bazela. Tolatxenekoa apezak jaso bezala garai batean azoka gunea izan omen zen. Ondoren, 1930. urtez geroztik, futbol gunea. Horren lekuko duzu erantsi den dokumentua, hau da, 1930. urteko festetako programa. Bertan zehazten denez, ofizialki bedekatua eta inauguratua izan zen urte hartan. Eta 1990. urtez aurrera-edo kirol-laster gune ere bagenuen. Urte askoan, 1930. urtez geroztik futbol txapelketak

Aurrerak-eta hor bertan egiten zituzten, eta horretaz gain azkeneko hamarkadan edo lasterkarientzako eremu berde eta onak bakarrazen, argiztatua eta. Horrela, lasterkari asko hortxe ibiltzen ginen lasai, errepide bazterreko porlan eta kea irentsi gabe. Eta gainera iluntzen zuenean argia eta guzti. Futbol guneaz gain, beraz, egun eta gaueko lasterka-lekua ere bazen Kakazelaie. Eta, bat-batean, pikadero edo delako hori hor ezartzea...

Lanerako behar ez duenarentzat zaldi-behorrak izatea garestia da. Eta zaletasun hori gutxi batzuen esku dago, oso-oso polita, errespetagarria eta inbidia-garria den arren. Hortaz, zorionekoak zaletasun horretaz gozatzeko zoria dutenak.

Aurrera joaz, esan beharra dago Leitzan apenas ez dagoela herri-lur egokirik eta zelairik deusetarako. Gainera, gure herrian, garapenaren izenean-eta, gauza asko irentsi behar izan dugu: Sarriro lantokia, industrialdeak, etxalde berriak, etxetoak... eta inguruak kalte handiak jasan ditu, zalantzarik gabe.

Horren guztiaren ondorioz, herria batere lur laurik gabe geratu zaigu. Eta penagarria da hori. Baina, gauzak horrela joan dira eta zer egingen diogu, ba. Aurrera begira jarri beharko. Hala ere, Inguruarte aurretik ez zuen beste erabilera baterako behin-betiko emana eta prestatua izatea zalantzarria da, nire ustez. Erabat aldaturik uztea gaur egun gelditzen den zelai bakarrenetakoa, herrian berde eta natural samarra lehen korri egiteko-eta denok arazorik gabe erabili izan dugun eremua....

Eta neure buruari galdetzen diot nik: Zergatik gertatu da aldaketa hori? Nork eskatu zuen? Zergatik erabaki zen erabilera elitista bati lehentasuna ematea? Zer egin beharko litzateke eremu horretan?


Kontuan hartzen badugu azken aldera gehiegi hausnartu gabe hartu direla zenbait erabaki, eskertuko nuke gaiari sakonki heldzea, eta bere lehen-orainak aztertuta, haren geroa zuzentasunez lantzea.

**Lasterkari bat**



## MANUELEN AGURRA

Hona hemen, irakurle, Manuelenganako bide bat!  
Lagunduko ahal dizu zuri ere urratzen beste bat!



Jaun-andreok, nere bederatzigarren liburua zuei eskeintzera nijoakizute borondaterik onena jarrita, baiña liburu au ez da nik idatzia: nere lagun aundi batek idatzi du nere baimenarekin. Nere prosa lanak bertan agertzen dira, ez noski denak; ortarako liburu aundi bat bearko litzateke ta. Nik len jarritako bertsoak ere irakurri al izango ditu bertsozale dan jende apalak, eta nik plazetan bat-batean kantatutako bertsoak ere bai.



“Bertsotxo batez bataiatzen da  
Nere libur berria,  
Nolabait ere ase dezadan  
Zalearen egarria.  
Gu sortu giñan lur au nola dan  
Benetan zoragarria  
Maite zaituztet, anai-arrebok,  
Maite det gure erria”

**Manuel Lasarte Arribillaga**

## Iberoko historiaz (II)

Lehenengo urteko Plazaolan, Ibero eta bere inguruko historiaz aritu ginen. Oraingoan gai honekin are eta aintzinarago egiteko moduan gara; zuhaitzaren sustraiak tiratzen hasten denari, hauek luze eta sakon azaltzen zaizkio sarri. Aipatutako Iberoko olaren historia laburra idatzi hartan, 1832. urtetik honantz aritu ginen jolasean; Ibero Minondo familiaren eskuetan zelarik, honantzko historiaz. Oraingoan atzera eginen dugu.



Nafarroako Karlos II erregearen garaian, XIV. mendearen erdialdera, aipatzen da lehen aldiz Ibero agiri zaharretan. Oñatiko Kontearen dorrearen antza zuela diote agiri horiek, zeren, ematen duenez, bere eskuetan egon zen urte batzutan Ibero. Beltran de Guevara eta bere 40 zaldunak eta 100 gudariak Nafarroako erregearen zerbitzura aritu ziren muga hauek zaintzen. Ganboarrak ziren eta Nafar Estatuaren aldekoak.

Ez dugu ahaztu behar, garai haietan pil-pilean zegoela Nafarroako eta Gaztelako Estatuaren arteko gatazka eta era berean, Ganboarren eta Oñaztarren artean zegoen leinuen arteko burruka, hots "guerra de bandos" delako hura. Hala, Oñaztarrak askotan sartzen ziren Nafarroako eremuetan lapurretak eta egitera, baita Ganboarrak alderantziz ere, Oñaztar ziren Berastegiko eta Lazkaoko lur-eremuetara... Hori zela eta, muga hau "frontera de malhechores" gisa zen ezagun. Gipuzkoako lurraldea Nafarroako Erresumakoa zen, baina 1200. urte inguruan Gaztelak indarrez bereganatu zuen lurralde hori eta geroztik, Oñaztarren bandoan bildu ziren leinuek Gaztelaren alde egin zuten. Dirudienez, 1369. urtetik 1373. arte, goian aipatutako Beltran de Guevara horren eskuetan zegoen muga hauen babesa eta Iberoko torrea hain zuzen, garrantzi handiko kokalekua zen ikuspegi horretatik ere.

1388 eta 1392 bitarteko urteetan bakea sinatu zuten Nafarroako Karlos III eta Gaztelako Juan I erregeek. Tarte horretan, 1389ko azaroaren 20an zehazki, nonbait ondatuxea zegoen eta, Iberoko ola berreraikitze baimena eman zuten: "... El Rey Carlos III autoriza a Miguel Ezquer de Lesaca para reedificar una erreria dirruida en termino de Leiza llamado Ybero con libertad de tomar minas, hacer carbon en yermos y montes reales tanto cuanto era necesario para si y sus



# IBERIZIO DONIA

descendientes perpetuamente con pagar al Rey 12 libras anuales...” Agiri horretan azaltzen da, torrea eta ola bera ere, behin eta berriz nola erre zituzten.

1340. urtean ola “Martinez de Ybero” baten eskuetan ageri da lanean. Geroago, 1392. urte aldera, Karlos III erregeak Iberoko ola “Johan Loppiz de Lecumberry”ren eskuetan utzi zuen: “... item la ferreria de Ybero q es Aniz Larrea y deve de lezna diez libras...” Dirudienez, Nafar Estatuari ematen zioten zerbitzuaren arabera, horrela saritzen zituzten erregeek beren zerbitzura zeuden jendeak; alegia, ola eta torreen jaun izendatuz.

Aztertzen ari garen urte horietan Orreagako Hospitalea ageri da Anizlarrearen nagusi: “... este era un partido en las inmediaciones de Goizueta, Oiarzun, Lesaca, Arano y Aranaz y otros pueblos, termino redondo, en su mayor parte poblado de arboles bravos, trasmochos y jarales cuya extension era de tres horas de circuito...”

1410. urte inguruan “Sanchez Ibañez de Olaiz” azaltzen da “Garcia de Lopez de Roncesvalles”, Erreinuko diruzainaren aurrera zitatuta, Iberoko

jaun gisa. 1423an hitzarmena sinatu zuten Orreagako monastegiak eta ola mordo batek, tartean Iberoko ola zela, Anizlarrean abereek bazkatu ahal izan zezaten.

Esku askotatik igaro ziren bai ola eta bai torrea ere: “Juan Pasquiner”, “Iñigo Sanchez Gurrpide”... 1443. urtean Iberoko erabilera bananduta ageri da; alde batetik “Pedro Ibañez de Goizueta” eta “Garcia Martinez de Goizueta”, eta bestetik “Martin, Miguel, Pedro, Salvador, Ochoa, Garcia y Juan Martinez de Ibero”.

1444. urtean ez zen giro izanen leitzarrentzat; Lesakarekin eta Goizuetarekin gertatu bezala, osotara erre baitzuten hau ere. Aresoarrek batera, biztanle guztiek ihes egin omen zuten bertatik eriosur. Atzera, berriz jendea herri honetarantz erakartzeko eta etorrarazteko edo, ondorengo 40 urtetarako zerga batzuren ordaindu-beharra kendu omen zieten, agirietan heldu denez.

1536. urtean, aprobetxamenduen gatazkarekin lotuta, epaiketa prozesu batetan ageri dira “Martin de Echeverria” eta “Sancho de Huici”. Orduetik honantz, epaiketak eta prozesuak dira nagusi Iberoko historian: 1592an, “Juan de Aranibar”, Leitzako abade omen zen “Fermin de Arano” zelakoaren aurka; 1604an, “Juan de Erasun” eta “Maria Esteban de Arano”, Goizuetako alkate zen “Juan de Alduncin” zelakoaren aurka... Agiri hauei erreparatuz, agerikoa da torrea nahiz ola ere, jende ahaltsuen eskuetan izaten zela. XVII. mendetik aurrera herriak beren ondasun komunalak tinko defendatzen hasi ziren, urte haietan basoek garrantzi handia hartu baitzuten herrietako balaibide gisa. Orduan hasi ziren herrien eta oletako jabeen arteko pleituak, basoen eskubideen gainean eta jabegoaren gainean. Leitzarango bailaran ikatza egiteko behar ziren mendi guztiak komunalak omen ziren. Pleitu asko egin zituen Leitzako herriak baso hauen



inguruko gaietaz. 1612an esaterako, Iberoko jabe ziren "Lorenzo de Vergara" eta "Juan de Alduncin"en aurkako prozesua; 1614an berriz; 1630ean, "Martin de Juarbe" eta "Juan de Alduncin"en artean; 1654an "Martin de Erviti" da ola-gizona; 1688an "Juan de Larreta" eta "Fermin de Goizueta"ren artean...

Larretatarrek Leitzako Udalarekin pleitu asko izan zituzten, azkenean ezkontzen bidez Minondotarrekin nahasi ziren arte. "Juan Antonio Larreta"k bere anaia "Ygnacio Larreta"ri igaro zion Ibero 1680an; azken honek bere emazte "Angela Echabe"rekin izan zuen semeari, "Juan Jacinto Larreta"ri utzi zion; Juan Jacinto honek "...fallecido en la casa torre de Ibero..." 1719ko urriaren 17an bere senide zen "Juan Domingo Larreta"ri utzi zion testamentaz. Garai horietan 20 urtez abandonatuta egon zela-eta beste pleitu bat izan zuten Juan Domingo horrek eta Leitzako herriak, azkenean adostasunera iritsi eta ola berriz martxan jarri. 1733. urtean beste pleitu bat ageri da, hain zuzen ere berreraikitze lan horietan egindako zorrak zirela medio, Leitzako "Domingo de Martirena"rekin. Juan Domingo honek, "Maria Esteban Lasa"rekin ezkondu eta alaba bat izan zuen, "Maria Teresa Larreta" izenekoa.

1742. urtean hasi eta 1780. urte arte iraun zuen Leitzako herriak Maria Teresa horren aurka izan zuen prozesuak; beste prozesu batek 1746etik

1757 arte iraun zuen, 1700. urteaz geroztik herriarekin egin zuen zorra zela eta.

Ekoizpenari, hau da egiten zuten lanari buruzko datuak ere ageri dira paper horietan zehaztuta. Hala, 1752ko ekoizpenaz honako hau heldu da: "... Ibero con su martinete (...) se halla en corriente en cada año 2500 quintales...". "Ferreria mayor" gisa hartzen zuten, Ollingo meategiko burniak lantzen baitzituen, kantitate handiekin ari ziren beraz. Egiturari dagokionez, berriz, honako atal hauek omen zituen: zearola "ferreria mayor", olatxo "ferreria menor", arestian esandako 2500 kintal egiteko gaitasunarekin, hau da 114.300 kg burni ekoizten zituen.

Horrela jarraitu zuten pleituz pleitu, Iberoko historia osatuz. Maria Teresa Larreta Juan Antonio Huarterekin ezkondu zen eta "Francisca Huarte de Larreta" alaba izan zuten. Hau zen "Juan Bautista Gregorio Minondo"rekin ezkondu zena. Hemendik aurrera iazko aldizkarian argitaratutako historiotoxoarekin lotura egin daiteke.

Ikusten dugun bezela, zuhaitz adartsua dugu oso, Ibero aldean ibili eta bizitakoa. Eta erraz ikus daiteke ere, zenbateko garrantzia izan zuen gure inguruan Iberok, nahiz eta orain dena erorita eta penagarri dagoen.

Hainbeste gatazka, historia... eta Leitzako herriak tinko defendatu zuen bere jabegoa urtez urte. Ibero herriari itzuli behar litzaioke, bere inguru behingoz, paketsu, duin jarri ahalizateko, historia mamitsua duen inguru eder hori. Leitzar guztiok irabaz dezagun. Pentsa zeinen leku ikusgarria den, konpondu eta gure iragana erakusteko.



**Artxibo zaharreko zomorrotxoak**



## ATERALDIK ETA IXTORIK

### **Berako dantzariak herriko plazan Lixuerra**

Yatetxeak otordu onak eskeintzen dituzte baina gero izaten dire kontuk. Batzuk alde-aldeakoak eta bestek...

Bazkaltzen izandako batek hau zion:

“Zopa ur hutse eman ziguen, haragie abarka baño lehorragoa eta kafea lixuerrea bezalakoa”. Lehenago ez zen izaten labadorarik eta lixue egiten zen. Kuelan arropak sartu, gainean haustontzie yarri suko hautsekin eta gainetik ur beroa bota. Hola aritzen ziren bi egunetan. Eta, yakiñe, gainetik botatzen den ure behitik ateratzen da arre-arrea. Honi esaten zahio “lixuerrea”.

### **Txertokie goyen**

Leitzeko estazioan trenaren zai zegoen bikotea. Neska haundie zen eta motille arkaosoa añe-koa. Oxakinek hala dio:

“Kristabek! Motill hau behar den lekuta allatuko ote da? Neska honek geo txertokie goyen do”

Nere motiko denboran “kristabe” hitza asko erabiltzen zen “pertsonek” hitzaren ordean.

Sagarrak edo gaztañek txertatzen diren lekuari esaten zaio “txertokie”. Handik gora hasten dire

adarrak zabaltzen. Gaztain-irauzteko oso trebeak ez zirenek esaten zuten: “Ni txertokireño iotzen naiz baño handik gora ez”

### **Gizon da erdiren boza**

Jexux motill ttikie zen baño boza lodi lodie zue-  
na. Jexux hil zenean “Xinko”k hala esan zuen: “Horrek zun gizon erdi baten tamañe eta gizon da erdiren boza”

### **Kañoraren bala**

Gerrondoan soldaduk Leitzen egondu ziren. Menditan tiroan aritzen ziren. Bandoa yorazten zuten azindak erretiratzeko menditatik eta gero dinbidanba kañonazoka aritzen ziren. Eta bala batzuk lehertu gabe gelditzen ziren. Peustenek Miel da motiko kozkorak zirela Asketan aurkitu zuten kañoraren bala haundi bat eta barrenak hutsak zituen pagozar baten sue egin eta lehertu zuten. Leherketaren ondoren puske ttiki-ttikik erori omen ziren lurre-ra. Burnizko euri yasa ari zuela ematen omen zuten.



## **Andrea sabutan eta ardie etxera**

Ezkonberrik ziren eta senar-emazteak yoaten ziren artiolak biltzera. Gizonak gerrin lotuta soka eramaten zuen eta pago adarretatik zintzilik yarrisoka eta andrea sabutan erabiltzen zuen. Eta andrea oso pozik ibiltzen zen dilin-dalan. "Zertarako yoan sanfermiñetara hemen holako lekuk izanda", esaten zuen gizonak. Yendea harrituta zegoen gizon honek andrea zeinen maite zuen. Baina soka ez zen andrea sabutan erabiltzeko bakarra. Iluntzen zuenean ardie ekartzen zuten etxera. Baina besteren artaldetik..!

## **Jainkoaren ofizioa**

Lehenago gaztañek estali haundie zuen. Udazkenean aurrena gaztain egosiak yaten ziren. Gaztañek zuritu, berdola kendu eta oso goxoak gelditzen ziren. Gero iluntzero danborea zintzilik latzetik, gaztañek tiroka zituela. Hola otsailaren azkenak aldera arte. Zerrik ere udazkenetan asko gizentzen ziren gaztañekin. Urte baten elurre goiz egin zuen, oraindik arbolak ostatuak zeudela. Eta yakiñe, etxetik gorako gaztañerin adarrak riski-raska hausten ari ziren elurraren zamarekin. Tripek yaten zeuden etxeokak eta hala zion Oxepak: "Ez giñekin Jainkoak zer ofizio zun eta basolarie atera zaigu. Gure gaztañerin ari da basoan!"

## **Bihurrek**

Txarako haritz ttiki horin adarrekin egiten zituzten bihukayek Aurrena bihurritu eta gero uretan sartzen zituzten. Sokaren ordez bete belarrak eramateko erabiltzen zituzten bihurrek

## **Itxurez pena haundie**

Leitzeko txistulari bat Betelure ezkondu zen eta han bizitzen zen. Etxalde ona zen eta morroie ere bazuten. Txistulari hau herriz-herri ibiltzen zen txistue yotzen eta binbitartean zer gertatu da: morroie eta andrea adiskidetu. Gizona ohartu zen zerbaitetaz eta egun baten hil papera egin zuen. Yarri zen obearen gainean

zerraldo eta andreak ikusi zuenean bela deitu zion morroiari. Hasi ziren hildakoa beztitzen. Morroiak ateratzen zituen gizonaren arropak armariotik eta arropa ona ateratzen zuenean andreak esaten zion: "Ez, ez, hori zuretzako gorde. Honek txarragoa nahikoa do. Ekatzo bizkarrean zarrata duen ator hori eta galtza adakituak. Alporja hau igual da bai zakun sartzen badugu ere"

Eta andrea umeak erregen bezperan baino pozikago zegoen. Handik aurrera ez zeukan ixilpean ibili beharrik morroiarekin gozatzeko. Gero agonioko ez kille yo zuten eta hasi zen kanpoko yendea etxera etortzen. Eta ordun andreak aurpegie aldatu zuen. Tipule txikitue begien aurrean yarri eta negar malko batzuk atera zituen eta deboxa bat bezala hasi zen: "Orain nek zer egin behar dot? Hauxe zen gizon ona eta zintzoa. Beti hiztun, behin ere ez murru. Auzoatan ere etzuen honek ixtillu haundirik sortzen. Denekin ongi etortzen zen. Gaur baño hobekigo zegoen Beteluko plazan txistue yotzen aritzen zenen" Eta ordun "zakurraren isatsa" esanda zutitu zen gizona eta yende guziari kontatu zion zer gertatu zen.

*Ixtori hau Beteluko Bengoetxeko Kasimira Truebak kontatu zidan, 1976. urtean*

## **Orantzaro begi gorri**

Orantzaro begi gorri.  
Bart gabeko hamaiketan,  
Sorobarrengo erreketan.

*Danboliñen Ursulak kantatu dit kantaren zati hau, baina ez daki hortik aurrera nola segitzen duen. 2009ko garagarrillek 24.*

## **Gauargik**

Lehenago gauargik nonahi azaltzen ziren. Argitasun haundie botatzen zuten eta batzutan



sue ere bai. Ez ziren sorgiñek, beste zer bait ziren. Joxeri gauargie azaldu omen zitizion gabez herritik etxera zetorrela. Zezen haundi bat, itsutzeko moduko argie botaz, yetsi omen zen ziripurdike trenbide baztarreko betelana behera. Gauargi honek hanka zulo izugarrik egiten omen zituen lur beratzean. Joxeri buruko hileak tente yarri eta zapela arrotu omen zitizion Eta hurrengo egunen Joxe yoan zen leku hure ekustea baina ez omen zegoen hanka arrastorik

### **Barrasasen putzusaye**

Goizen egune argitzeen izugarrizko usai txarra izaten da atarin. Usai honi deitzen zaio "Barrasasen putzusaye". Beste batzuk deitzen dioa "Luziferren putzusaye".

*Hau Barungo Martin Sagastibeltzak kontatu dit, 2009ko garragarriek 24.*

### **Antzaryokoa**

Antzarak koloretako zintekin, zaldiak jantzi dotoreekin apainduak eta zaldi gaineoak pesta hortarako yantzi egokiekin prestatuak. Kapitanak yantzi apartekoa izaten zuen eta zintez ongi apaindutako ezpatarekin antzarak zirikatzen zituen. Festa ikusgarria izaten zen eta jende asko biltzen zen. Astaitzagako Pantxike ez omen zen bestela pestetan herririe etortzen baina antzaryokoa zenean bai. Gogoan dauket gure attunak nola esaten zuen: "Behin ixtorketaa giñizen eta Pantxike herriko oihutaa ohartu antzaryokoa bazela eta sardea harrike bota eta yoantzen antzaryokoa ekustea".

Antzaryokoan ibiltzea nolabaiteko kategoria bat zen. Nortasun bat ematen zuen antzaryokoan ibiltzeak. Nere motiko denboran esaten zuten: "Mittorlako Joxebenardo antzaryokoan ibilita yoantzen Ameriketara", "Garagartzako Filomeno Muñagorri antzaryokoan ibilita yoantzen kintoihesi", "urte baten Oxemiel Yoantxenekoa zen antzaryokoko kapitana" "beste urte baten Etxeberriko Joan zen antzaryokoko kapitana"

Adar eta ostoz ongi apaindutako urkabea jartzen zuten plazan. Antzara urkabetik zintzilik jartzen zuten eta zaldia laisterka zetorrenean sokatik tiratu eta goratu egiten zuten. Jineteak asko luzatu behar zuen antzarari lepoa harrapatu eta ateratzeko.

Txistulariak urkabearen gainean jartzen ziren eta antzarari lepoa atera aurretik soinu mota bat jartzen zuten eta lepoa ateratakoan bestea. Antzara guziei lepoak ateratzez bukatzen zutenean piperropillek jartzen zituzten urkabetik zintzililik. Piperropilleren beheko muturrean burnizko eraztuna jartzen zuten eta jineteak zurezko kako bat sartu eta piperropille berekin eraman behar zuen. Baina ez zen batere erraza eraztun hortan kakoa sartzea.

Leitzen azkeneko antzaryokoa 1920an egin zen. Gaur Leitzen zaldi gañen oitutako yende asko dago. Erretrato zaharretan ongi begiratu eta zaldiak eta jineteak ordun bezelatsu yantzi eta egin liteke gaur antzaryokoa. Saia gaitezen!

### **Astaitz**



*OHARRA: sabutakoa eta kuelaren dibujoak Domingoneko Mikel Alkotzek egin ditu.*

## Leitzalarrera “Sasain” bizkarretik, “Sasain” bizkarrera Frantsesen iartzatik barrena

Mendizale askok, eta Leitzalarre-zaleek zer esanik ez, ederki ezagutzen dituzte paraje hauek, hala ere, nahi duenarentzat, proposatutako bidearen barrena, gozatzeko aukera eskaintzen saiatuko naiz.

Honetarako, herritik atera eta Leitzalarreko bidea hartuz eta honi jarraituz, Sarasain bizkarrera iristen gara. Han kotxea utzi eta, oinez hasiko gara, zubia pasata, berehala, Sarasain txabolara iritsi arte. Txabola ezker aldean utzi eta ekialdera bide zaharra hartuta Koskaingo

erreka pasa behar da. Alertze eta haritz amerikarren artetik zelai-zelai bideari segitu behar zaio. Bidean, bertan dagoen iturrira ailegatu eta hau utzita Olaetako erreka topatuko dugu. Ezker aldean txabola zahar bat ikusteko parada izanen da; Barreneko txabola. Honek guztiak balio izaten du geure burua beste garaietan kokatzeko. Behera goazelarik bide nagusiarekin bat egiten dugu eta aurrez aurre Sarasain iturri dakusagu. Ingurura begiratzuz gero, paraje bikaina; zuloan Sarasain erreka, eskuinaldean Arloxe pagadia eta ezkerrean Mendibil mendisoi larrea.



Kanalaren ondotik 2009ko mugarren bueltan

Aipatutako Arloxe aldean ola zaharraren aztarnak ikus daitezke. Garai batean ola bat zer zen erreparatuz geroz, garai bateko industriari buruzko galdera pila sortzen zaizkigu, eta egia esanik, batzuetan erantzuna asmatu behar izaten da egungo bizimodutik begiratuta erantzun nahi badiogu. Beheraxeago Sarasain presa (argindarra sortzeko 1.942an egina) dugu eta presaren paretatik bestaldera pasa daiteke baina kontuz, putzura erori gabe! Hormigoizko kanalean -pasealeku bikaina- kanalez kanal segitu behar da bi harkaitz handi, bitxi eta "bixkiren" tartetik pasatuz. Hao ateka da eta "Marilo eta Marila" deituriko parajea edo tokia. Arloxe atakatik kanala jarraitu behar da eta begibistan agertzen dira; Aritz-malkor, Zarpean, Putretako ha-



rrobia, Latata, Egibeltza eta Berango lepoa. Hain toki itxia izanik, hori izen mordoa. Egun sekulan aditu gabeko izenak edo oso gutxitan entzunak ditugu, nahiz eta zenbaiten aiton-amonek oso ohiko eta ezagun zituzten lehen. Broma badi-rudi ere, ariketa ona gertatuko litzaiguke buruz ikastea izenok, gure burmuinetako "materia gris" deitzen duguna gehiago garatu ahal izateko.

Kanala agerian eta bertan ur geldoak. Hala ere, gero eta handiagoa dirudi eta egia esanda halaxeda. Putzu handia topatu artean jarraitu behar da, bertan, guarda bere familiarekin bizi izandako txabolatxoak aurkitzen dugu. Behean, amildegia bailitza, zentrala eta Goizuetako kamioa dakusagu. Parez pare Ezkurmendi. Ezkurreko mendia, noski. Iparralderantz egia jarraituz, Basaketako egia behera, bidezidorra topatu arte eta hemendik ospel aldera, mendebaldera hain zuzen. Malda behera eta nabaria da orain. Segidan, Madariko ospelean bertan, lehen borda; Katalintxoneko-borda. Xendari jarraituz, Luisenborda aurre-aurre eta honen garai-aldean "Frantsesen iartza".

Urte batzuk igaro dira, hortik lehen aldiz igaro nintzela eta artzain batek kontatu zidan ahoz-aho pasatako istorioa. Ondoren, nahiz eta bertsio ezberdinak izan, tokiren batean edo bestean irakurri edo aditu dudana kontatu zidan. Berak zuen doinu magikoa lortu gabe, hona hemen niri kontatutakoa edo nire barnean geratu zena; "... Konbentzioko Gerrate garaia omen zen eta hemengo gertaera 1.794-95 urteko neguan izan omen zen. Bada, frantses soldadu saila erretiran zihoala paraje honetan galdu egin omen zen. Berez paraje malkarra eta harkaitza da. Pasatzeko arteka estua duena eta gainera, negu hartako izozterik handiena izan omen zen soldadu hauek etorri zirenean. Bidea erakusteko borda hauetako artzainen bat estu eta larri hartu zutela



Basaketako egia hartuta beherantz

ere esaten da. Honek, bidean jarri zirenean, goitik behera amilduarazi zituen, denak bertan akabatuz. Izotza dela, artzainarena dela, borda horretako ondorengoak ere, gizalditan ordaindu behar izan omen zuten meza-saria orduko gertaera kitatzeko..."





Paraje horietan ustekabe asko gerta daitezke

Hau irudikatu ondoren, hango belar sorotik behera jarraitu behar dugu. Hamaiketakoa jateko toki ona gerta liteke, harkaitz handi hauei begira. Atsedena ondoren, Madariko ospelean sartzen gara eta bidezidor polit bat hartuz, haritz, gaztaina eta hurritz ugariren tartean murgiltzen gara. Sarasain erreka handira ailegatzean gara, garai bateko bizitzaren lekukoa bailitzan. Sagarrondo inguratutako Miltxon-borda ederki ikus daiteke hurbil. Erreka ganean hormigoiz egindako zubia, bertako artzainek ez oso aspaldi egin, arinarin eta saltoka pasatzeko tentazio sortzen da. Bidea behetik gorantz aldatzen denean, kexu ozenak bota daitezke, inongo beldurrik gabe eta gure barrena lasaituz. Aldapa ez da oso luze,

baina malkartsua bai. Bidean, aspalditik erortzen hasia den Mandazaien-borda ikusten da pare-pare. Belatxoaren azpialdean Zortzikon-borda zaharra utzita, bidexkan bertan, Garagartzako-borda zaharrarekin egiten dugu topo, 1.929an sute baten ondorioz berri gabe gelditu dena.


Bidezidorra bide nagusia egiten denean, pago handi batzuk igaro eta bidexkan dagoen iturri ttikia aurkituko dugu; Barberon iturria. Bidea segituz hasieran ibilitako bidea ikusten da. Hemendik bertatik, hurbil dago amaiera. Azkeneko ola zaharraren aztarnen segidan, Sarasain presa eta Sarasain iturria hurrengoan igaroko ditugu. Gorantz hartu beharrean orain, aurrera segi eta Sarasaingo erreka inguratuko gara. Katalogatua dagoen zubi erromanikoa zeharkatzen dugu.

Aurreraxeago Errosteko erreka ganean, lehen segurua ez zen egurrez eta lurrez egindako zubi kaxkar bat igaro behar zen, baina bestelako itxura du oraingo honek.

Pista zabala hartu eta udazken aldean bat ere txarra ez den ontto lekutik jarraituz, zubirik gabeko Sarasain erreka pasa behar da. Bide honetatik aurrera, txabolaren parean hasierako bidea hartu eta Sarasain bizkarrera iristen gara berriro ere. Gehienok, botak kendu ondoren, bide bazterrean ikus daitezkeen pago eta bestelako zuhaitzetara begira; "dudarik ez dago, toki ederrean bizi gara" esatera ausartuko gara. Hala ere, guzti honek urtetan hementxe jarraituko du eta gure inguruko historiaren zatia betetzen jarraituko du. Guri inguru honetara etortzea eta zaintzea besterik ez dagokigu, horrelaxe gozatuko dugu hemengoaz!

# BARZIO DONA

## Informazio gehigarria:



### 1. Sarasain, Frantsesen iartza, Urruzunako bordak, Sarasain ibilbidea.

Ibilbidea eta ordutegia

- Sarasain bizkarra
- Sarasain txabola (10')
- Sarasain iturria (20')
- Arloxe ateka (40')
- Kanaleko txabolatxo (1h. 10')
- Frantsesen iartza (1h. 25')
- Miltxon borda (1h. 45')
- Mandazaien borda (1h. 55')
- Sarasain presa (2h. 25')
- Sarasain bizkarra 2h. 45')



### 2. Ibilbidearen toki-izenak

- Sarasain; bizkarra, txabola, iturria, erreka, presa zubi erromanikoa.
- Koskaingo erreka
- Olaetako erreka,
- Barreneko txabola,
- Arloxe pagadia eta Arloxe ateka,
- Marilo eta Marila arkaitzak,
- Aritz malkor, Putretako harrobia, Latata, Egibeltza eta Berango lepoa.
- Mendibil mendia,
- Frantsesen iartza,
- Barberon iturria,
- Errosteko erreka .
- Ezkurmendi,
- Basaketako egia,
- Madariko ospela.

### 3. Bordak

- Katalintxoneko borda,
- Luisenborda,
- Miltxon-borda,
- Mandazaien-borda,
- Zortzikon-borda (Miltxon goiko borda)
- Garagartzako borda zaharra.



## NORENA OTE ELIZA?



Bada denbora bat polemika zabaltzen hasia dela. Nafarroako Artzobispadoak erdi ezkutuan eta gizarteak jakin gabe 1998. urtetik gaur egun bitartean, askoren ustez herrienak izan daitezkeen 1087 ondasun, bere izenean erregistratu ditu. Elizak, basa-elizak, apezteak, hilerriak... daude horien artean.

Eskandalua lehertu da: Nafarroako herrien patrimonioa Elizak bere izenean erregistratzen du. Honetarako, 1946. urtean, frankismo garai gordinean egindako lege batean oinarritu dira, hau da, Lege hipotekarioko 206. artikuluan. Artikulu honen bidez, Elizaren izenean erre-

gistratuak ez zeuden ondasunak eta beti herrien eskuetan egon zirenak, erregistratzeko aukera eman zitzaion elizari.

Artzobispadua jarrera isilik egotea izan zen hasieran, baina azken aldiaren beren argudioak argitara eman dituzte: beraien ustez, beti bereak izan direla eta parrokiaren izenean jartzen dituztela gainera.

Baina, norena da Eliza? Leitzako kasuan, Udaletxeko artxiboetan, aurkitu daitezke datu argi eta garbiak -Elizako lanak Udalak ordaintzen zituela agertzen duten agiriak- Elizako Patrona? Leitzako Udala bera zela argi agertzen duen 1784 urteko agiri bat ("... a la Villa de Leiza patrona de SU iglesia parroquial.... a SU iglesia parroquial , en que quanto interresa todo el vecindario y aun la misma Villa como su cabeza, y con respeto al Patronato laical que le compete y corresponde..."). "Patronato laical: si la fundacion del patronato ha sido con bienes patrimoniales." Hau da, Udalaren ondasunekin sortu baldin bada Patronatoa (Eliza). Argiago esatea posible al da???

Adibide gisara beste agiri hauek ere aipatzea besterik ez dago (eta kontutan hartu behar da askoz gehiago egon badaudela):



-1530 Escritura de poder y procuracion de los vecinos de la villa de Leiza sobre la fabrica de la iglesia y sentencia del consejo su notificacion.

-1613 Expediente del convenio entre el patronato parroquial (udalazen patronoa) y maese Domingo Bularro cantero, sobre las obras de la iglesia.

-1622 Solicitudes de la vacante de la abadia de la iglesia parroquial de Leiza. ( Udalak egiten? Patrono bezala lan hori ere berari legokioke)

-1712 Carta de pago del Patronato parroquial en favor de Simion de Bengoechea, maestro arquitecto , por la construccion del retablo MUNICIPAL... de la parroquia de s.Tiburcio.

-1764 Traslado del auto de resolucion del AYUNTAMIENTO para destinar 50 ducados de SUS VENTAS, para la fabrica de la iglesia. (Hortik patronato laical: "si la fundación del patronato ha sido con bienes patrimoniales". Hara hor Udalaren "bienes patrimoniales") 1778 Carta de pago de las obras de acarreo de piedra para la favrica de la iglesia.

-1832 A peticion del AYUNTAMIENTO, auto del obispado para que se nombre un tenente sacerdote confesor.

-1920 Expediente de compra de reloj para la iglesia de Leiza. Horrelako agiriak ugariak dira Udaletxeko artxiboan.

-1957 Presupuesto adicional al extraordinario para la realizacion de obras de reforma del baptisterio, presbitero y coro de la iglesia parroquial de Leiza.

Udalak egina, ("fabrica") Udalak gobernatura ("patronato laical") eta Udalak konpondua (baita 1957ko obrak ere). Norena da ba, eliza?

Noski, herritarrek ere, eliza hornitzen joateko, borondatez uzten zituzten bere ondasun eta diruak. Borondate hauek neurtzeko pentsa daiteke denetik egonen zirela , pentsa garai horietan denak behartuta zeudela elizarekin harreman zuzena izatea jaiotzatik heriotzaraino eta hori izan zutela hain zuzen beraien "sinesmen askatasuna". Nahi edo ez nahi behartuta zeudela eta beldurrez biziko zutela askok horrelako egoera, eta orain dela gutxi arte ezagutu direla horrelakoak.

Beste aldetik zinezko sinestunak ere izanzen ziren ugari noski eta beren kezka espiritualak nolabait asetzeko, apezten lana eta beraien batzarretan biltzeko tokia behar zuten, hori esan nahi du hain zuzen "ecclesia" hitzak grekoeraz, batzarra alegia.

Udalak lurra eta diruak jarri, jendeak auzolana eta indarra (eta batzuk negozioa eginen zuten, noski) eta horrela eraikia izan zen eliza. Eta ondoren izan dituen berritze lanak ere udalak ordaindu zituen, eta hor daude agiriak.

Azken aipatu moduko datua askoren gogoan egon daitekeena... Leitzeko zinearena da. Udalak ordaindu, 1956. urtean, elizari utzi (zeditu), "cine parroquial" izenarekin eta gero erosi egin behar izan zion, 1988. urtean, a zer nolako tratua Leitzeko herriak bi aldiz ordaindu du zinea...

Udalak, herriak, lurra jarri, egin, ordaindu, mantendu, gobernatu eta konpondu baldin badu, norena da eliza??? Ez ote luke honek beste komunal ondasunen trataera berdina izan behar???



### Aurrerako bazkide hori:

2009ko festak ere iada iritsi zaizkigu, San Tiburtzio festak, eta ongi pasatzeko gonbitea luzatu nahi dizuegu.

Urteroko moduan orri hauek erabili nahi ditugu gure Elkarteko zenbait berri emateko:

- Hasteko laburtu, aurten antolatutako ekitaldi berri pare bat. Herriko krosa, larunbatean ospatu zelako, lehenbiziko urtez, eta arrakastatsua suertatu zelako, gero Sagardo Eguna lehenengo aldiz ere, antolatu zelako ALKE kultur elkartearekin batera eta hau ere guztiz borobila atera zelako eta bukatzeko pesta bezperan antolatu den musika jaialdia, hau ere estrenaldia suposatuko delako guretzat, eta horretan ere Aurrera K.E. laguntzaile bezela egonen delako.

- Urtero bezela, berriz ere gogorarazi nahi dizuegu, zuetako askok oraindik ez duzuela argazki eta daturik ekarri bazkideen karneta berria egiteko. Oraindik ere garaiz zabiltzate eta datuak jasotzen goazen heinean, karnetak egiten jarraituko dugu hemendik.

- AURRERA EGUNA, berriro ere ospatu nahi dugu zuekin. Aurten, irailaren 19an izanen da eta iazko zuen parte-hartzea espero dugu aurten ere. Dena dela, informazio gehiago eta egitaraua aurrerago emango dizuegu. Egun honetan, lehengo urtean bezala, falta diren karnetak banatu nahi genituzke.

- Dagoeneko elkarteko azken zuzendaritza osatu zenetik urte ia,ia, urte bat igaro da. Honekin batera esan nahi dizuegu hainbat batzordeetan jendea behar dugula, bereziki Pilota Eskola eramateko, norbaitek interesa izanen balu, bihotzez eskertuko genioke.

- Gehienok ezagutuko duzuen Nafarroako Kutxako "Zuk aukeratzen duzu, zuk erabakitzen duzu" ekimenean jende askok parte hartu du aurten ere eta eskerrak eman nahi dizkizuegu hemendik, bertan parte hartu duzuen guztioi. Dena den, horrela jarraitzea gustatuko litzauguke, horregatik Nafarroako Kutxan aurkeztutako egitasmoa aurten ere babestea eskatu nahi dizuegu.

Aipamen berezia egin nahi diegu, nola ez, Aurrera K.E. osatzen duten batzorde guztiei. Urtean zehar antolatu ohi diren ekintzak herriari zuzentzeko asmoarekin eginak izan ohi dira eta hau ez litzateke posible izango zuek guztiok gabe. Beraz, MILA ESKER eta ZORIONAK hemendik!

Eta amaitzeko nola ez, ZUEK (bazkideak) zoriondu nahi zaituztegu; zuen babes eta laguntzarik gabe hau guztia aurrera eramatea ezinezkoa izango bailitzateke. Zuei ere, MILA ESKER eta ZORIONAK!

Festa alaiak igaro eta **GORA SAN TIBURTZIO!!!**

AURRERA K.E. ko ZUZENDARITZA



## Festetako gastuen zerrenda 2009ko aurrekontua

<b>PLAZAKO MUSIKA</b>	<b>16.210,00</b>
Trikidantz	1.450,00
Laket	1.500,00
Garraxi	1.740,00
Tximeleta	2.320,00
Orkrestra	1.000,00
Habeas Corpus	3.500,00
Zesatek	600,00
Prefosta	4.100,00
<b>KIROLAK</b>	<b>4.695,00</b>
Txirrindulari lasterketarako anbulantzia	225,00
Txirrindulari lasterketa	1.200,00
Herri kirolak	2.270,00
Pilota partiduak	1.000,00
<b>UMEENTZAT</b>	<b>3.199,00</b>
Puzgarriak (Keima)	960,00
Topagunea (tailerra)	464,00
Kulki	725,00
Goxokiak	300,00
Zezensuzkoak	750,00
<b>BESTELAKO PROGRAMAZIOA</b>	<b>13.504,00</b>
Lesakako banda, Jeiki abesbatza, Aurrerako dantzariak, txistulariak, etab.	6.000,00
Incansables Txaranga	7.000,00
Aurrerako Dantzariak	1.000,00
Gaiteroak	300,00
Txistulariak	890,00
Bertsu saioa	2.000,00
Aulkien alogera	324,00
Pestetako opariak (paella lehiaketa)	90,00
Goitibeherak	1.900,00
<b>ZEZENAK</b>	<b>14.517,50</b>
Gizarte aseguratza	215,50
Mapfre (erantzukizun zibila)	4.477,00
Mapfre (istripuak eta baliezintasuna)	390,00
Asier Arrizabalaga (behiak)	3.745,00
Ukuluaren alokairua	290,00
Medikua eta erizaina+anbulantzia	4.340,00
Hondarra eta porteak	810,00
Hondarra biltzeko makina	250,00
<b>OTORDUAK ETA OSTATUAK</b>	<b>10.730,00</b>
Santiburtzio eguneko hamaikakakoa	1.000,00
Besteak	5.250,00
Herri-afaria	4.480,00
<b>PROGRAMAK ETA PUBLIZITATEA</b>	<b>2.242,00</b>
Programa	2.042,00
Programaren azalaren lehiaketaren sariak	200,00
<b>BESTELAKOAK</b>	<b>8.590,00</b>
Kioskoen garraioa	1.200,00
Komunen alokairua	1.650,00
Argi indarraren konexioa eta gastua	840,00
Sociedad General de Autores	1.350,00
Suziriak	250,00
Hesiak berritzea	1.000,00
Langileen aparteko orduak	2.300,00
<b>GUZTIRA:</b>	<b>73.687,50</b>





## ZORTZIKO LABETXEA KAFETEGI GOZOTEGI ETA OKINDEGIA



- Ogi egin berria
- Pentsa, Gosari goxo goxo (laranja zuku naturala, croissant eta kafea)
- Pastak, Pastelak, Tartak (Enkarguak egun batetik bestera ekartzen dira)
- Zapone guztietako kukurutzuzko izozkiak

*Pesta onak pasa!*

Elbarren 20 Tel. 948 510 720




Amazabal, 37 • LEITZA  
948 610 756 • 615 100 842

**ongi pasa  
pestak!**

## G@ZTETXO

## ZIBERGUNEA

- @ INTERNETA
- @ JOKOAK-SAREAN
- @ JUEGOS EN RED
- @ ESKANERRA
- @ INPRESORA



ELBARREN 16 • LEITZA TEL. 948510741

## ARANTXA

ileapaindegia

GORA SAN TIBURIZIOAK

Obispo Huarte, 8  
☎ 948 610 931



# GORRITZ

**ERAIKUNTZAK • ESKABAZIOAK**

LEITZA (Nafarroa) TLF: 948-510 140/ FAX: 948 510 996

# SANTIBURTZIO ONAK PASA!!!



POLIURETANOZKO  
BABES ETA  
INJEKZIOZKO  
ISOLAKETA

**AISLAN-LEITZA, s.l**

**689 800 371**

Santa Luzia pasealekua, 4 B behea Buztintxuri • IRUÑA



**EGUZKI** ileapaindegia

ASUN eta LIDIA

Ongi pasa pestak

Elbarren 34 - 1.A • ☎ 948 610 649 • LEITZA

**LEITZAKO**  
**gasolindegia**

Rafael Mugicaren alarguna

**948 510 057**



**ASTIZ** ANAIK  
ZURGINDEGIA

Klase guztietako egu lanak,  
ateak, leihoak, tarima,  
armairuak eta kristaldegia

ONGI PASA PESTAK!!

**948 610 606 • 948 510 285**

**LEIZA ANAIK SL**  
**eraikuntzak**

*aupa San Tiburtzioak!*

Lizarraga, 17 • 948 610 927 - 948 610 934

**EROSLE**



SUPERMERKATUA

*Gera San Tiburtzioak*

☎ 948 510 007 ☎ 948 610 657 • LEITZA



**LEIZA**  
MANDRILADORA

**ONGI PASA PESTAK!**



Eluseder Pol. Ind. - Tel. 948 510 600 - 948 510 601 • Faxe 948 510 602

**PERURENA**  
harategia

Hemengo zekorretan espezialitatea  
Urdaitegia

■ *Jai Zoriontsuak opa dizkizue* ■

Tel.: 948 51 01 64


**OLIVEIRA - VICENTE**

ERAIKUNTZA

Ongi pasa San Tiburtzioak

Amazabal Kalea 17, 3.B. • Leitza • 948 510 516

**BELAR DENDA**



*Belara*

Telf. 948 51 01 92 - **LEITZA** (Nafarroa)

TIBURTZIO DENDA



Pintura lanak  
orokorrean

**MELO**  
pintura lanak

Tfnoa: 609 873 178 · LEITZA



**URTO  
KARROZERIA**

TXAPA ETA PINTURA KONPONKETAK  
**Jesús Azurmendi Jauregi**

Ongi pasa San Tiburtzioak!!

Kamineros etxea **BERASTEGI**

☎ 943 68 34 99 - 948 61 06 64



**BEATRIZENEA**

TABERNA-JATETXEA

PESTA ONAK  
IGARO

MENUA • OTARTEKOAK • KAXUELITAK • PINTXOAK

Mikel Deuna, 2 • Tel: 948 510 991 • LEITZA

**denontzat**  
MERTZERIA

Jostun tresnak, galtzerdiak eta  
azpiko arropa

Tel. 948 51 05 61 • LEITZA



**ARDI-GAZTA**

**Gorritz**

*Pesta alaiak pasa ditzagun  
errepresaliatuak gogoan ditugula*



Xabier Sestorain • Gorritz baserria • LEITZA • 948 510 570



**PERITZA  
TABERNA**

PESTA ONAK PASA  
ETA TXINTXO IBILI

**ESKERRIK ASKO ANTOLATZAILE GUZTIEI**

C/ elbarren, 67 bajo  
t. 948 510 197  
leitza

**AINART**  
ILEAPAINDEGIA

**B** Olaia  
Bazar

ONGI PASA BESTAK!

LOREAK  
PAPERTEGIA  
JOSTAILUAK  
HERRAMINTAK  
ETXEKO TRESNAK  
JANTZIAK  
GARBIKETARAKO  
PRODUKTUAK

LEITZA • Elbarren, 36-37 behea • 948 510 437



**GARBILAN LEITZA S.L.**

Obispo Huarte 8, 2. C  
Tel. 696 75 56 43

*pesta onak pasa!*

**MENDIGORRI  
elkartea**

**Pesta onak igaro**

**Patxi Arrazola • LEITZA**





**KAPRITXO**

- \* Opariak
- \* Bitxiak
- \* Neska eta mutilen arropak

ONGI PASA PESTAKI  
Landa Ind. 948 510 994



**JEIKI ABESBATZA**

www.jeikiabesbatza.com  
jeiki.leitza@gmail.com  
Tel.948 510 512

**Gora San Tiburtzioak!**



**MAIMUR**

- Prentsa · opariak · testu liburuak
- Plastifikatzeak · enkuadernatzeak
- Inprenta lanak · fotokopiak

**ONGI PASA PESTAKI!**

Herriko Plaza  
**LEITZA**  
Tfnoa-Faxa:  
948 510 146

ONGI PASA PESTAKI

*Lizarraga*  
harategia



Elbarren, 71 · Tel. 948 510 007 · Leitza



**SAGASTI JATETXEA**  
ongi igaro pestak!

Elbarren, 98 · LEITZA · ☎ 948 610 637

**Gosariak · Kaxuelak · Ogitartekoak  
Bazkariak · Afariak**



**CARNICERIA**  
*Arzallus*  
**HARATEGIA**

*Chistorra y Productos Artesanos  
de elaboración propia*

C/ Elbarren, 37 • 31880 LEITZA • Tel. 948 51 03 77  
Etxe Aurrea • 20492 BERAESTEGI • Tel. 943 68 30 42

**BITXILORE LOREDENDA**

ONGI PASA BESTAKI

- ✿ LORE NATURALA
- ✿ LORE LEHORRAK
- ✿ EZKONTZETAKO LOREAK
- ✿ KOROIAK
- ✿ ETAB...

Elbarren 59 - Tel. : 948 510 654 - LEITZA

**TXOKO TABERNA**

- Pintxoak
- Otartekoak
- Kaxuelak

**JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE**



**BULDAIN**  
inmobiliaria

Tel: 948 510 534  
Mug: 649 476 615  
**LEITZA**

**Pesta onak pasa!**

Festa eder hauetan zuen nahiak  
bete ditzazuen opa dizuet

**JOVIZU** S.L.  
**EMBALAJES**

**PESTA ONAK  
OPA DIZKIZUE**

Leitzalarreko errepidea, 1 km  
**948 510 053**





**edr'gunea**  
Ainhoa Azpiroz  
Esfetizista

Laserra • Solariuma • Depilazioak • Makillajea  
Aurpegiko tratamenduak • Gorputzeko tratamenduak  
Opari baleak • Begien edertzea

Elbarren 67 behea • LEITZA • T 948 510 273 • edrgunea@yahoo.es



**MUSUNZAR**  
**OSTATUA**

**bai**  
eskara  
Guk zerbitzu  
eskara

• Jatetxea  
• Logelak

Elbarren, 14 • LEITZA • Tfnoa: 948 510 607 • 948 510 475  
**ONGI PASA PESTAK!**

**J.M. HERNANDORENA**

Burdindegia • Garbigarriak  
Oparidenda • Garraioak

**ONGI  
PASA  
PESTAK!**

Telefona: 948 510 055

**bai**  
eskara

**ZURLAN**

ateak • zurezko leihoak • leiho mistoak • tarimak  
sukalde eta armairu enpotratuak  
zurgin lan guziak

**ongi pasa  
pestak!!**

Goiko Errota - LEITZA  
Tfnoak: 948 510 402 - 609 067 123

**ORAIN ELKARTEA**

*Jai zoriontsuak opa dizkizue  
herriar eta bisitari guztiari*

**LEITZA**

**GOZOTEGIA**

**Eguzkitza**

Bº Erreka, 3 Bajo - 948 510 614 LEITZA  
Elbarren, 35 - 948 610 646 LEITZA  
San Frantzisko, 24 - 943 650 041 TOLOSA

**g**aztañaga **a**  
taberna

Otartekoak, Pintxo beroak, Kaxuelak

**948 610 708**

Ongi pasa pestak!

**T.**

**TXARAGORRI**  
**ITURGINTZA**  
**FONTANERIA**

**ONGI PASA BESTAK!**

Elbarren, 56 (Martikonea) • Leitza • 649 853 440

**ASTIZ**

**Liburudenda**

Elbarren kalea Tel/Faxa 948 510 262

- » Prentsa
- » Testu liburuak
- » Opariak
- » Inprenta lanak
- » Eskolako gaiak

Pesta onak pasa

**iruso**

*Jai zoriontsuak opa  
dizkizuegu!*

Jatetxe-ostatua

Tfnoa: 948 397 035 / 669 013 294  
www.iruso.com



# IMELDA LARRAZ

Estankoa, Janari denda etb...

Jai zoriontsuak opa dizkizue

# GARBI

Garbigaidenda eta lurrindegia

948 51 01 73

*Ongi pasa besta!*

# LEITZELARREA S.L

aroztegi metalikoa

Landa Industrialdea, 20

Tel: 948 510 598 - 669 368 991

LEITZA



# ARAKINDEGIA

jatetxea

Menua · Karta  
garaien garaiko otorduak

ONGI PASA PESTAK!!

Elbarren, 42 · LEITZA  
Tfnoa: 948 510 052 · Faxa: 948 510 633



# BIKOITZ

Taberna

- » Pintxoak
- » Otartekoak
- » Pastelak
- » Tartak

ENKARGUAK ERE HARTZEN DITUGU  
Ongi pasa pestak!

Elbarren, 16 · LEITZA · Tfnoa: 948 510 072

# GURATZ-MENDI

K.K.J. ELKARTEA



*ongi pasa bestak!*

Elgoien, 22  
LEITZA

# AMAIA



arraindegia

EGUNEKO ARRAIA

ONGI PASA  
PESTAK !!

Uharte Gotzaia · LEITZA  
948 510 590

# Biok Jantziak



Gizonezko, emakume eta umeentzako jantziak

Elbarren, 32 · LEITZA · 948 510 558 · 948 510 477

# PLAZA ASEGURUAK

Mota guztietako aseguruak

Pesta onak pasa ditzazuela

Uharte Gotzaia, 8 · LEITZA  
Tfnoa: 948 510 338

# ARIZTIMUÑO ANAIK

eraikuntzak

Lan orokorrak eta berrikuntzak

Ogin pasa pestak

948 510 202 · 948 510 374 · LEITZA

LABURZIO DONEA





# BANCO DE VASCONIA

Leitzar eta bisitari guztiak  
pesta goxo batzuk pasa ditzazuela

948 510 138 - LEITZA



Leitzar taberna  
948 510 352 • LEITZA

Pesta onak pasa

PESTA ZORIONTSUAK  
OPA DIZKIZUE!



## OGI BERRI

*Ogi eta opil artisaauak*

## JUBILATUEN TABERNA

Ongi pasa  
San Tiburtzioak!

948 610 935

### Ane Egizabal Llata FISIOTERAPEUTA

CPS-C01824-1/09NA



- Errehabilitazioa
- Osteopatia
- Kirol eta zirkulazio masaia
- Erditze aurreko / ondorengo tratamendua:
- Mutuak
- Aseguruak
- Partikularrak



Ongi pasa San Tiburtzioak

Uharte Gotzaia, 8 3.C - LEITZA - Tel.: 948 510 730

## JEXCAVACIONES JOARBE S.L

Jai zoriontsuak  
opa dizkizue

OBISPO HUARTE 8  
Tel/Fax.: 948 610 971  
Mugikorra: 629 219 068



Grupo Tanatorio Taldea

## IRACHE

Maldarreka S.L.  
Leitzako Belatokia

24 ORDUKO ZERBITZUA  
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA  
IRUNGO OSPITALETIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

TEL. 948 63 74 04 • 628 03 02 90

## ETXE-TRESNAK S.L

Elektrogailuak  
Instalazio elektrikoak



ongi pasa pestak!

Elbarren, 45 · LEITZA

T: 948510181 · 948 510 208



## ARRARAS

### edariak, s.l.

Eluseder industrialdea, 1 - Areso (Nafarroa)  
Tel. 948 610 888 | Fax 948 610 863 | Mug. 630 048 770

## KORNIETA ELKARTEA

Ongi pasa  
San Tiburtzioak

LEITZA



# HARTATEGIA-URDATEGIA URKIOLA

*Jai zorientsuak  
opa dirkirue*

Idi haragitan eta hemengo Zekorretan espezialitatea

Tel. 948 510 747 / 948 510 467 - LEITZA



# KIDE

aholkularitza

**ONGI  
PASA  
PESTAK!**

Kontabilitatea · Zergak · Autonomoak · Enpresen sorrerak  
Autoen transferentzia · Errenta aitopenak · Aholkularitza juridikoa  
Nominak, kontratuak...

LEITZA: Landa Ind. Suizpi 3 • T. 948 510 990 F. 948 510 429  
DONOSTIA: Bergara 23 -1Ezk • T/F 943 42 03 48



# CAJA RURAL DE NAVARRA

## NAFARROAKO RURAL KUTXA

*Pesta onak pasa*

Leitzako Bulegoa • Elbarren, 35 • Tel / Faxe: 948 610 735

LABURRIZIO DONIA





## Leitza Garajea Peugeot Agentzia

STIHL AGENTZIA 6 NEKAZARI TAILERRA



*la denok kategorizko pestak pasatzen ditugun*

Landa industrialdea Tel. 948 510 466 / 948 510 404 6LEITZA

# Dia %

# OKABIO

## Kafetegia

# SUPERMERKATUA

Pesta zoriontsuak  
opa dizkizuegu!

Tel: 948 510 731

**Dia % Landa Etxea · Leitza**

# CARLOS SAGASTIBELTZA VILLANUEVA

ARKITEKTU TEKNIKOA

Proiektuak • Aurrekontuak  
Berrikuntzak • Obren kontrola  
Lur neurketak • etab

948 610 677 • 629 611 912


**Ongi pasa San Tiburtzioak !**



## TORRE ETABERNA

GOSARI, ETA AFARI, EDERRAK

EUSKAL MARTXA ETA  
BORROKA ERREPRESALIATUAK  
AHAZTU GABE



948 61 09 09



Leizako Udala

Leitzako Udalak  
*pesta onak opa dizkizue!*





ISOLAMENDUAK

Sabaiak, intsonorizazioak,  
hormak, apalategiak eta erreformak

www.pladurnavarra.es - pladurnavarra@yahoo.es  
Efrain 660 677 888 - Jon Ander 628 055 178  
Bidaburua 1, 1D - Atarrabia (Nafarroa)

miara  
*ilcapaindegia*

Makilaje saioak ere egiten dira, aurrez hitzartuta

*pesta onak pasa!*

Kale Nagusia, 1 Behea  
20492 Berastegi

tel. 943 683 697

## DENAUTO SAGASPER TAILERRA

AUTO KONPONKETA - CITROEN AUTOAK - GRUA ZERBITZUA



Eluserder Industrialdea  
Poligono Industrial Eluserder

Tel.: 948 510 610  
Faxa: 948 510 917

31876 ARESO  
(Nafarroa)

**Mikel Zabaleta**

**abokatua**

**Pestak ongi pasa!**

**Tfnoak : 676 24 21 24 / 948 510 541 • mzabaletaa@micap.es**

**GURIA**  
KARROZERIAK  
TXAPA - PINTURA

**P.KALDERON**

### Txapa

- Neurgailu elektronikoa ordenadorez, diagnosiak bankaden neurria.

### Pintura

- Labe kabina. Denetariko pinturak (ekolojikoak, uretara...)

### Autoqarriketa

- Garbitzeko ur beroko makina, aspiragailua. Irekita egun guztiak

### Berreldaketa

- Denetariko akzesorioak eta berreldaketak (llantak, pilotoak, kateak, etab...)

**LANDA POLIGONOA • 948 51 02 55 • LEITZA**

LABURZIO DONEA

**ika**  
www.ikanet.net

**EUSKARAZ**  
**jantzi**  
el euskera **viste**

**LEITZAKO EUSKALTEGIA**  
Leitzako Udaletxean  
tel. 948 610 776  
leitza@ikanet.net

euskara ikasi!



**Lorea**  
**ileapaindegia**

☎ 948 610 907  
☎ 699 115 986  
Inaziobarun etxea  
Elbarren 98, Leitza

**TALLERES** **ONGI PASA PESTAK!**  
**Ireber** S.L.

**MANTENIMENDU PREDIKTIBOA**  
**INDUSTRI MAKINERIAREN MONTATZE ETA KONPONKETA**

Landa Industrialdea - Pab. 9B - 10B Leitza  
Tel. 948 510 842 - 639 134 464 - Fax. 948 510 843



**Jose Maria**  
**etxeberria**

**gizonezkoentzako ileapaindegia**  
Gora San Tiburtzioak

**jm** 948 510 282 • LEITZA

**aislamientos**  
**BERIAIN**

- SISTEMAS PYL
- ESCAYOLAS
- PROTECCION PASIVA
- AISLAMIENTOS TERMICOS Y ACUSTICOS
- TODO TIPO DE FALSOS TECHOS, REGISTRABLES ETC.

Pol. Erekaldea, C/.F - Nave, D • 31191 BERIAIN (Navarra)  
Telf.: 948 31 00 55 • Fax: 948 31 00 54  
E-mail: aislamientosberiaín@aislamientosberiaín.com



Iturgintza lanak  
kalefakzioa, gasa  
eta zeramika

**Gaztelu**

*Pesta anak pasa!!!*



Landa Behikoa Industrialdea 21  
31880 Leitza  
Tel: 948 510 086  
Email: gazteluf@infonegocio.com





**JAI ALAI  
OSTATUA**

Tfnoa: 948 510 735 • Faxe: 948 510 736  
www.jai-alai.es • info@jai-alai.es

**ONGI PASA PESTAK!!**

**Sagastibeltza  
eta Artola**

Era guzitako igeltsero lanak  
*Gora Leitzako pestak!*

TEL.: 948 510 265 / 948 610 724



**LEIMEN**

Era guztietako elektrizitate lanak

LEITZA 628 725 396 Argoitz  
MENDILLORRI 628 725 397 david

*Jai zoriontsuak denoi!!*



**ELKARTEA, S.L.**

ITURGINTZA, GASA, GASOLEOA, TXIMENEAK

*Ongi pasa Pestak!*

Bide onde etxea **ARESO** • San Miguel, 2 **LEITZA**  
948 510 153 / 948 610 682 / 689 701 557  
Larrialdiak: 948 271020

**Pagozelaya**  
construcciones

**ERAIKUNTZAK • HERRI LANAK**

*Jai zoriontsuak  
opa dizkizue*

Landa Industrialdea • 17 B 1go solairua  
31880 LEITZA • NAFARROA  
Tfnoa: 948 510 346 • Faxe: 948 610 962





